

Lemoatx Trail lasterketarako dana prest dago

Zehendiaren 19an jokatuko dira Lemoatx Traileko mendi lasterketak. Lasterketa luzeak 24,2 kilometro eta 1.300 metroko desnibela dauka eta laburrak 16,4 kilometro eta 910 metroko desnibela. Mendi martxa bi be egongo dira. Oihana Azkorbebeitiak eta Ander Iñarrak izena emonda daukie bertan parte hartzeako. Lemoatx Trailek Etiketa Berdea dauka eta zaborrik ez sortzean saiatuko dirala jakinarazo dabe antolakuntzatik. Herrian jai giroa egongo da proba egunean. **18. orrialdea**



Indarkeria matxista bako bizitzak biziteko aldarria egingo da zehendiaren 25aren inguruan

Andren kontrako indarkeria ezabatzeko nazinoarteko egunaren inguruan, elkarretaratzeak eta sensibilizazio ekintza ugari antolatu ditue talde feministek, andra taldeek eta erakundeek.

Zehendiaren 25ean, andrek "bizirik, aske eta antolatuta" bizi gura dabela aldarrikatzeko, elkarretaratzeak egingo ditue herrietan eta uriburuetakako manifestazioetan hartuko dabe parte. Testigantza jasoten dituen eta gaiaren inguruko antzezlanek, dokumentalek eta mahai-inguruek, besteak beste, osotuten dabe egoera latz honen gainean sensibilizatea bilatzen daben kultura jarduera egitaraua. Urtero lez, Arratiako Udalen Mankomunitatea osotuen daben udalek eta herri horreetako talde feministek eta andra taldeek, zehendiaren 25aren inguruko kartel bateratua atera dabe. **10. eta 12. orrialdeak**



LEMOA

Lemoako klubeko 15 pelotarik jokatu dabe Bartzelonan

Lemoako Esku Pilota Taldeko 14 eta 16 urte bitarteko hamabost pelotarik hartuko dabe parte Bartzelonan estatu mailako andren binakako txapelketan, 1992ko Joko Olinpikoetarako eregitako Vall d'Hebrongo frontoian. **19. orrialdea**

IGORRE

Ekitaldia egin zan Institutuan, Literaturearen balioa aitortzeko

Arratia Institutuko Andere Bouza, June Etxezarraga eta Enara Gallastegi Urruzuno Literatur Lehiaketak saritu ditu aurtan, eta Institutuak, aitortza ekitaldia egin eutsen lana errekonoziduteko. Bertan, Mikel Urkixo idazle eta irakasleak idaztearen garrantziaren gaineko berbaldia egin eban. **5. orrialdea**

ZEANURI

Undurragako preseak 50 urte bete ditu hilaren 6an

1970 eta 1973 urteen artean luzatu ziran urtegia eregiteko obrak eta 1973ko zehendiaren 6an bialdu zala ura presatik lehenengo, jasoten dabe Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko liburuek. Bilbo Handia hornitzen dauan Venta Altako (Arrigorriaga) araztegiara ura bialtzeko egin zan urtegiak, 1.850.000 metro kubiko ur biltzeako eukiera dauka eta Arratia eta Barazar erreken eta beste erreka txiki batzuen urak hartzean ditu. Uribarri-Ganboa urtegiari lotuta dago, lurpeko ubide baten bidez. 2018an, 1,3 kilometroko lurpeko galeria bat eregi zan, "Bilboko hornidura bermatuteko eta segurtasuna hobetuteko". **13. orrialdea**

EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA

- PSIKOLOGIA: umeak, gazteak eta helduak
- LOGOPEDIA
- LAGUNTZA PSIKOEDUKATIBOA
- PSIKOMOTRIZIDADEA
- GURASO ESKOLA
- BETI ERANTZUNIK ONENA EMOTEKO PREST!

Lehendakari Agirre 4, Igorre - 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com [ekineanpsikologiazentrua](https://www.instagram.com/ekineanpsikologiazentrua)

GEUREKIN KONEKTATZEA OPARIRIK ONENA

40% Beherapena

2. AUDIFONOA* EROSTERAKOAN
*Momentu 140, Momentu 130 eta Momentu 220 Audifonoiak

2024ko urtarrilaren 7arte

Olaetxe Sabino Arana Kalea, 3. Igorre. T. 946 57 70 03

Aural CENTROS AUDITIVOS

Literatura txokoa

RELATOS DE LOS MARES DEL SUR


Gaur, antxina irakurri neban liburua aurkeztuten deusuet. Gaztetan irakurri neban erderaz, eta barriro irakurri dot oraintsu. Aspaldion abenturazko libururen bat irakurteko gogo biztu ja, eta etxean daukadazan liburu zaharren artean bila hasi, eta Jack Londonen liburu hau topau dot. Lantzean behin egiten dodan ariketea izaten da, aspaldian irakurri neban liburu bat hartu eta atzera irakurri; eta egia esan, hori egin dodan guztietan sano gustura berri irakurri dot liburua.

Oingoan abentura hutsezkotzat euki neban liburua sorpresaa ekarri deust, eta deskubridu dot letren artean kritika zorrotza gordetzen dabela Jack Londonen narrazioek. Narratzaile bikaina

da, pertsonaiak deskribidu barik marraztu egiten dituala esan lei; hain ondo eta zehatz marraztu be, ze pertsonaiak bizirik dagozala esango geunke. Gertatuten diran akzioak be film baten ikusi geinkean zehaztasunaz deskribiduten ditu. Baina idazteko maisutasun horrez gainera, mendebaldeko kulturearen kritika zorrotza egiten dau Londonek. *Koolau el leproso* izenburuko narrazioan gizaki zuriok planetan zehar egin doguzan mobimentuen bitartez eta gure politikek eragindako mobimentuen bitartez, munduko indigenen kalterako, eroan doguzan gaixotasunen salaketea ikusi geinke. Narrazio guztietan agirian dago indigenenganako

mespretxua, eta indigenen erresistentzia be ikusten dan arren aitatu dodan *Koolau el leproso* edo *Mauki* izenburuko narrazioetan, esate baterako, indigenak galtzaille dira beti.

Asmatu be egin eban espresino bat gaur egunera arte bizirik egon dana, eta liburuko bigarren narrazioari izenburua emoten deusana: *El inevitable hombre blanco*. Euskeraz itzulpen hori emotea ez da erraza, erderaz hartuten dauan esangurea hartu dagian; baina erderaz indar handia dauka "inevitable" berbeak testuinguru horretan hartuten dauan adierak. Narrazio horretan ailegetan da mailarik gorenera gizaki zuriaren ankerkeria eta indigenenganako mespretxua.



Jack London

Relatos de los mares del sur

200 orrialde

Azken baten, liburu zoragarria, maisu handi batek idatzia.

Rafa Ugalde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 13tik 19ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 20tik 26ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 27tik abenduaren 3ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra ordu.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Herri Akordioa zaintza sistema publiko komunitarioaren alde

Greba Feminista herri mobimentu, sektore eta eragile gehiagok alkarlanean josten gabiz prozesua da Herri Akordioa.

Akordio honen bidez, zaintza sistema publiko komunitario bari baten beharra plazaratu gura dogu eta bertan epe luzeko zein epe laburreko aldarrikapenak batu doguz.

Epe laburreko aldarrikapen artean hurrengoak aitatuko neukez:

-Zaintza, jagotea, beti hain etxekoa eta hain pribadua izan danez sinistu dogu norberaren arazoa dala, baina ez, bada sasoi zaintza sistema publiko txukun baten beharra aldarrikatzeko. Zerbitzuen pribatizazioari ez!

-Etxe etxeko laguntza zerbitzua indartzea be eskatzen dogu eta laguntza sareak zaintzaile edota

langileentzat.

-Zaintza lanbideari merezidu dauan duintasuna emon behar jako eta horretarako lan baldintzak hobetzea ezinbestekoa da. Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea be aldarrikatzen dogu.

-Atzeritartasun legearen desagerepena derrigorrezkoa da.

-Gizonak interpelatzea gura dogu, ez zaintzaren pribilegioari uko egin deioen, baizik eta zaintza lanetan behingoz! arduera hartu dagien. Zaintza lanak zehar lerro moduan (modu transbersalean) landutea be behar-beharrezkoa da hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuetan.

Honegatik guztiagaitik, zehazkiaren 30ean mobimentuan parte hartzea konbidatzen zaituet: Zaintzen sistema publiko komunitario feminista baten alde, Greba Orokorra!

KARI BASOZABAL ZAMAKONA.
ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTAREN PARTAIDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXV). Kale berbakunea sustatu guran

GOZAK ETA GAXAK

Sarritan jenteak aditz bi honeek konfundiduten **jozak/jozana** (ditu).

Gozak=gaituk=(gara)

Gaxak=gaiazak=(gagoz)

-Gu laster etxera joango **gozak**.
-Sutondoan sano gustura **gaxak**.

-Mikelegaz mendira joan **gozak**, gero "Txirinka" botila bat edan **juk** eta oin ederto baten **gaxak**.

-Eurria hasi **dok**, galapan hasi **gozak** eta oin aterpean **gaxak**.

ERETXIA

Begiratzen dana besterik ez da ikusten eta buruan daukagunari bakarrik begiratzen jako

Oin dala egun gitxi, aita batek, semea besoetan ebala, Urbasako (Nafarroa) amiltegi batetik bere buruaz beste egin ebala inoan albiste lazgarriagaz esnatu ginan. Umeak 7 urte eukazan. Amaren urtebetetzea zan. Zentzutasun minimo bat daukan inork ezin dau sinistu amarenganako gorrotoa, misoginia, mendekua bere seme-alabenganako "maitasuna" baino handiagoa danik, baina holan da, eta zoritxarrez, gero eta kasu gehiagok erakusten deuskue hori. Pentsau gura dot gizartea gero eta gehiago bat datorrela indarkeria bikario terminoagaz, baina zer gertatzen da indarkeria hori erabilten dauana, aita izateaz gainera, epailetza bera danean?

Indarkeria instituzionala edo, Reem Alsalem andron kontrako indarkeriari buruzko Nazino Batuen Errelatora bereziak berak esan eban legez, tortura instituzionala, sibilinoagoa da. Beti entzun izan dogu jauregiko gauzak astiro doazala, eta ohitzen ez garan arren, eutsi egin behar deusagu gure seme-alabak epaitegiaren zelan hazten diran ikusteari, legez bete arazoten dauanaren ideologiaren mende zelan geratzen diran ikusteari eta gure umeen zaintzak zigorra daukien edo ez daukien tratu txarrak emoten dauzan aitaren esku zelan geratzen diran ikusteari.

Begiratzen dana bakarrik ikusten da, eta buruan daukagunari bakarrik begiratzen jako, eta zoritxarrez, gizatasuna galtzean gabiz. Oin dala hilebete bat baino gehiago, Israelek Gazan egindako erasoetatik, dagoaneko ohikoa da gorpuak ikusita gosaltzea. Bost axola izaretan bildutako ume horreek guztiak; kasu askotan, azken



IRUNE COSTUMERO

besarkada edo negar egingo ez deusken inor ez daukien ondoan. Odolak bor-bor egin euskun gatazkaren lehen egunetan, eta berehala antolatu ziran konzentrazioak eta gaitzespen manifestaldiak, zehazkiaren 25ean indarkeria matxistearen kontra egingo diranak langoak, baina hurrengo egunean ahaztuko jakuz hondakinen erdian bere ama aurkitzen ez dauan ume horren oihuak legez, edo era etigarrian negarrez dagoan ume horren oihuak legez, bortxatzen, txarto tratetan, umiliatzen, gitxisten, iraintzen dauan personeagaz itzuli behar dalako: bere "aita"gaz. Begiratzen dana besterik ez da

ikusten, eta buruan daukagunari baino ez jako begiratzen, eta, zoritxarrez, beste alde batera begiratzen dogu, ez dogulako gura gure gogamenean gure erosotasun eremutik aterako gaituan ezer sartzea. Errazagoa da gauza hutsaletan pentsetea, ni lango beste ama batzuek pentsetan dogun bitartean zelan berreskuratu gure umeak eta zelan salbau indarkeriaren eta abusuaren atzaparretatik.

Errazagoa da beste alde batera begiratzea, jakina. Ama batzuek oheratzeko orduan meditazioa entzuten daben bitartean, nire moduko beste batzuei umea bortxaz eta poliziaren aurrean arrankau euskuen eguneko oihu etsiek burrunba egiten deuskue.

Errazagoa da beste alde batera begiratzea, jakina. Batez be, egia absolutuaren poderea eta sinismena daukiela pentsetan dabenean, lehen mailako justizia daukielako. Baina igoten dan guztia jaisten da, ez dot nik esaten, grabedadearen legeak baino, eta jaisten danean, garaierearen arabera, gogorragoa da golpea. Auzitegi Konstituzionalean burrukan egitea toketan jata, eta alabea arrankau eustenen kostu guztiak nire gain hartzea, Sergio Murillo Corzo diputadu ohiarena barne, baina ni ez naz beste aldeira begiratzen dauan persona bat, ez dot inoz egin, ezta egingo be, ez nabe holan hezi gurasoek.

Ez dot amore emongo, burrukan jarraituko dot eta esaten jarraituko dot Euskal Herrian haurtzarora negozio bihurtu dabela eta negozio horretan jente askok parte hartzean dauala, zehazkiaren 25ean argazkirako pankarta feministearen atzetik aterako diran batzuek, tartean. Baina gure esku dago hau aldatzea, ez izateko gitxi batzuk bizitza ixten gabizanak gizarte hau aldatzeko. Inoz ez da berandu betaurreko moreak janzteko, eta gure inguruan zer gertatzen dan ikusteko ama babesleakaz, gure umeakaz eta gure epailetzagaz, gure erasotzaileek eurek baino oindino gehiago umiliatzen eta erruduntzat jotzen gaituana.



LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Oldarraldia

Aitortu behar dot gitxitan erabili izan dodan berbea dala, oldarraldia. Historiaren inguruko gertaeraren bat aitzeko akaso, salaketaren bat egite-rako orduan, aditz moduan, edo modu formalean, baina ez da nire eguneroko hiztegiaren dodan berba korrienterik. Egunokaz zoritxarrez, eta gure hizkuntzearen defentsatik hasita, pankarta bihurtu jaku. Asko dira egunean-egunean ikusten gabizana oldarraldi larriak; askatasuna, eskubideak edota Herriak izan gura izatearen, herritarren kontra.

Oldarraldia, gerra bihurtuta urte batez jasaten dabilena hur sentiduten dogun Europako Ukrainako herritarak. Hemendik eta ez bairik barik, hain hur eta hain urrun sentiduten dogun herriagaz bat egin dogu, nahiz eta erantzukizuna edo errua norena dan esatean ados ipinten ez garan. Urte bat eta gogortzen, baina emoten dau egutegiko orrien antzera atzean ixten goazela. Ezin ezer egin? Beste erronka eta oldarraldiek aurre hartzean?

Oldarraldia, oin hilebete Palesti-

nako Hamasek egindakoa eta oldarraldi eta txikizina bihurtu dana palestinarrentzat. Erlijinozko begia begiaren truke, gaiztakeriarik gorenena bihurtuta, mendekua eta gorrotoa hartuta herritarren sarraskia egunetik egunera handiagoa da. Eta hemendik zein munduko beste hainbat lekutatik, hara begira; "azkeneraino joango gara" berbei aurre egitearren, kalera urten, agintariei gerra hori gelditu daziela edo beste hainbat ekitaldi buruturik gabiz. Beste ezer ezin egin...? Egutegiko orriari bueltea?

Oldarraldiak be Espainian, gobernuaren kontra, amnistiaren kontra, Herriak hartutako ebatzien kontra eta finkatuta egon ei dan alkarbizitearen kontra. Horreek dira komunikabideetako azken orduak. Bistan aurrean daukaguz oldartzen diranak, itxurea, parafemaria eta izaera ezagunak jakuz, baina batek daki egia osoa... Eta gazte asko. *Deja vu* bildurgaria niretzat. Beharbada egutegiko orri asko pasauta? Ezin ahaztu euskeraz, zaharrak barri esaten dala...

Eta zemendian gagozanez, ezin itxi aitatu barik andrekin jasaten dabean oldarraldiak. Honeek ez daukie datarik, ez dakigu noz hasi ziran eta zoritxarrez ezin jakin noz amaitutako diran. Egia da andron aldetik konzientzia gero eta handiagoa dala eta ondo dakigula oldarraldia oldarkeria bihurtu dala eta ezinbestekoa dala gizarte osoaren konpromisoa beroneguz amaituteko. Hile honetako zenbait ekintza oso lagungarri izango jakuz egiturazko oldarkeriaren aurkako tresnak eskuratzeko. A! eta amaitu arte, ez dagigun inoz orria pasau.

ZERTZEAN



ANGEL LARREA

Palestina (II)

Herri baten sufrimenduaren paradigma, Palestina, gure bihotzetan zaude aspalditik! Palestina arabiarra eta musulmana! Belen, Nablus, Ramala, GAZA... zure hiriak, lur joriak; uraren eskasiagatik, agortuak. Errefuxiatu-zelai latzetan egoten beharturik, zenbat pobrezia, zenbat umilazio! Etorkizuna, hala ere, zure seme-alabekin egingo da: ziur, euren lurraldea askea eta duina izango da! Herritarren harrotasuna eta itxaropena, azken finean, herriaren libertatea ezagutzeko, auzo juduekin akordioak betearazteko; oztopoak asko izan arren, egin aurrera bakean!!

Oharra: 2014ko istiluen ostean idatzi neban BEGITUrako *Palestina* izenburuko poema. Hemen dakart *Palestina II* oso-oso antzekoa dan beste poema hau, gaurko palestinarren egoera dramatikoak dalako.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Zemendiak 6, eta dagoeneko, Igorreko kaleetan Gabonetako argiak ipini dabaz. Udako oporretatik bueltan sarritan esan eta entzuten dugu "Gabonak be laster datoz", eta, hori entzundako bezainbestetan, nagitsu eta oporraldiaren gozamina amaitu danaren etsipenez erantzuten dogu, abenduaren 24a urrun dagoala esanaz.

20 gradutik gorako tenperaturak izan doguzan udagoien honetan, ostera, Udalak hasi dira herriak Gabonetarako atontzen, eta, bada hilabete turroiak supermerkaduko apaletan ageri dirala.

Klima aldaketeak bere horretan jarraitzen badau, eta, bai herri-administrazioek eta merkataritzeak be bide beretsuari eusten badeutsie, ez oso urruneko etorkizunean, Gabonetako argien distirapean, Areatzako ugerlekuetan turroia jaten ibiliko gara. Dana, denpora kon-tua da!

Ainara Arregi



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinikak
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igoite-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Iñigo Irujo Zerbaitz 101
R.P.S. 31/06

ARANTZAZU/ARTEA

Hilaren 16an, herritarrakaz batzarrak egingo dabez udal gobernuek 2024ko aurrekontuen inguruan

Arantzazun, 18:00etan izango da batzarra Kultur Gunean eta Artean, 19:00etan, Kultur Etxean.

Erredakzioa

Batzarrotan, udal ordezkariak 2024ko aurrekontuetarako daukiezan asmoak aurkeztu eta ostean, herritarren ekarpenak jasoko ditue.

Arantzazun batzarra "ideak eta kezkek jasoteko" baliatuko dabela adierazo deitso BEGITUri Asier Aburto alkateak. "Holango batzarretan ez da urteten proposamen edo proiektu handirik, nahiz eta etorri ahal diran idea potoloak. Kezka txikiak eta holango gauzak izaten dira batzarretan jasoten doguzanak".

Hurrengo asteetan hasiko dira oposizioagaz be batzarrak egiten, eta egutegia beteten bada, abenduaren 26an daukie 2024ko aurrekontuak bozkatzeko asmoa, udaleko osoko bilkuran.

Artea

Artean be egingo dabe batzarra aurrekontu asmoak aurkeztutako hilaren 16an. Herritarren ekarpenak idatziz jasoko ditue zehazkiaren 17tik abenduaren 11ra



arte alkatetza.artea@bizakia.org helbidean edo udaletxean bulego ordutegian. Ogasun batzordea zehazkiaren 8an batu zan lehenengo aldiriz eta beste bitan be batuko da hilaren 17an, alderdientzako be ekarpenak egiteko epea hasten danean eta abenduaren 14an, egindako ekarpenei erantzuna emoteko.

Aurrekontuak onartutako osoko bilkura, abenduaren 27rako daukie aurreikusita.

IGORRE

Gazteak emanzipetako tresnak eta informazioa eskainiko ditu Maratuk

Erredakzioa

Igorreko gazteria zerbitzua dan Maratuk, gaur egun gazteek bizi dabean emanzipetako zailtasunak kontuan izanda, "aukerak eta baliabideak" ezetu arazoteko berbaldira antolatu dau. Saioa zehazkiaren 29an izango da, 18:00etan, Igorreko Kultur Etxean eta GAZ emanzipazinarako zerbitzuak gidatuko dau saioa.

Bertara, hamazortzi eta hogeta hamalau urte bitarteko gazteak dagoz deituta eta helburua informazioa jasotzea da. "Emanzipazinoari eta etxebizitza aukeratzeari buruzko ebaztiak hartzeako beharrezkoak diran tresnak eta informazioa jasoteko berbaldira da", azaldu dabe Maratutik.



GAZ, euskal erakundeek bultzatutako emanzipazinarako laguntza zerbitzu bat da. Honen helburua, 2030 urterako, burujabetu diran gazteen tasa handitzeaz gainera, batez besteko adina 28 urtera bajatzea da. Gaur egun, batez besteko adina 31,2 urtekoa da.

ARRATIA

Aurtengo Urruzuno Literatur Lehiaketako saridunei aitortza egin eutsen Institutuan

Arratia Institutuko Andere Bouzak, June Etxezarragak eta Enara Gallastegik Urruzuno Literatur Lehiaketan saridunak izan dira 2023ko edizioan.

Erredakzioa

Arratia BHI Institutua, aitortza ekitaldi bat antolatu eban zehazkiaren 7an, ikasle sarituen lanari errekonozimendua egiteko.

Bertan, berbea hartu eban Hezkuntzako Euskara Zerbitzuko Alberto Telleriak eta Mikel Urkixo idazle eta Institutuko Literatura irakasleak, Literaturearen garrantzia mahai gaineratzeko. Galder Olibares Institutuko irakasle eta zuzendaritzako kideak alkarriketatu eban ikasleak eta ostean, lan sarituen zatitxo bana irakurri eban Bouzak, Etxezarragak eta Gallastegik, udal eta AUMko ordezkarien eskuetatik aitortza opariak jaso aurretik.

Telleriak Urruzuno Literatur Lehiaketaren dimensioa azaltzen hasi eban bere berbaldira. Sariak garrantzitsuak dirala, kalidadea errekonozituz dabelako eta "mesedez, zuen lanari meritua emon, onak zarielako eta inportanteak zarielako" eskatu eutsen ikasle sarituei. Lehiaketea sortu zanetik Arratia Institutuan, 23 saridun egon dira. Zerbaki handi honek Institutuko Literatura irakasleen "konpromisoa eta ardura irakurri eta idazteagaz, Literatureagaz eta gizarteagaz" erakusten daua esan eban Hezkuntzako Euskara Zerbitzukoak. Eta lehenengo eta oingo Literatura irakasleak aiatu eban, tartean, Juanxu Rekalde, Angel Larrea eta Mikel Urkixo.

Andere Bouza, June Etxezarra-

ga eta Enara Gallastegiri beste saridunakaz izandako egonaldiaren inguruko galderak egin eutsen eta gazteak pozik agertu ziran han ikasi eta bizi izandakoagaz.

Idaztearen garrantzia

Idazteari ez ixteko be eskatu eutsen Mikel Urkixo idazle eta irakasleak eta idaztearen zergaitiak azaldu eban banan-banan bere berbaldiran. Etxeparetik hasita, euskal literaturearen errepa-so historikoa egin eban, egungo idazleengana heldu arte. Literatura "norberaren akats parkatu ezin diranak espilu aurrean ipinita eta erreka uraren kontra uger eginaz" egiten dala esan eban. "Batzuek dana idatzita dagoala esaten daben honetan, zertarako jarraitu idazten?" galdu eban. "Idatzi egin behar da, lehenik eta behin, gustukoa dozulako, idatzi egin behar da, mundua kontatzeko, idatzi egin behar da

konforme ez gagozalako, idatzi egin behar da errebeldeak garalako, idatzi egin behar da idazteak eguneroko bizitzaren mediokridadetik aldentzeko aukerea emoten deuskulako, idatzi egin behar da gauza asko gustuko ez doguzalako, idatzi egin behar da ez idaztea hauturik errazena dalako, idatzi egin behar da idazteak norbera ezetuteko balio dualako eta idatzi egin behar da letren bidez errealdadea hobeto azaltzen dogulako: ederragoa, itsusiagoa, errealaagoa, justuagoa, mistikoagoa, hurbilekoagoa, pasionalagoa...". Idazteko grina biztutearen irakasleen arduraz egin eban berbe gero.

Sarituen lanak

Andere Bouzak *Zauria maitasunetik* poesiagaitik jaso eban Urruzuno saria eta poesia ha irakurri eban publikoarentzat, ekitaldian. June Etxezarragak be poesia saria jaso eban *Neska nerabe baten bizitza zortzi ahapalditan* lanagaz eta zati bat irakurri eban ekitaldian. Enara Gallastegik *Hasiera berri bat* narrazioagaz irabazi eban saria eta lehenengo orrialdea irakurri eban.



Enara Gallastegi, Andere Bouza eta June Etxezarraga.

IGORRE

Berbalagun-ek ekintza bi antolatu ditu ikasturte hasikera honetarako

Erredakzioa

Arratiako AEK-k Areatza, Igorre eta Lemoan aurrera daroan Berbalagun proiektuaren barruan ekintza bi antolatu ditu hurrengo hamabostaldirako. Mintzodromoa izango da ikasturteko lehenengo ekintza, zehazkiaren 23an, goizeko 11:30ean Igorreko Kubulu euskaltegian. "Bertan, kafea eta bizkotxo lagun, euskera

praktiketako momentu parebakoa izango dabe partaideek. Ikasle, herritar zein Berbalagun, animau zaitetz parte hartzera!" adierazo dabe AEK-ko kideek.

Parte hartzeako zehazkiaren 22a baino lehen, 662 199 033 zenbakira deitu edo Euskaltegitik pasau eta izena emon behar da.

Bigarren ekintza abenduaren 1ean izango da arrastiko 18:30ean Lasarte Aretuan. Bertan jentea go-

zarozten urte mordo daroan Eriz magoak bere magia ikuskizuna aurkeztuko dau. "Fantasiako mundu baten murgildu gura dozu? Ilusioa eta magia lagun, dana posible izango da" dinoe antolatzaileek. Saioa debaldekoa izango da.



IGORRE

Etorkizuneko Igorre herritarrakaz egin gura dau Bizi Igorren 2030 proiektuak

Bizi Igorren 2030 proiektua, Igorre bizigarri, jasagarri eta parte-hartzaile baten alde lan egiteko prozesu irekia da, Igorreko etorkizuna herritarrakaz eta eragileakaz batera definitu gura dauana.

Maraka Koop. Elkarte Txikia dabil proiektu hau garatzen, Apitropik eta Ko-garri gizarte barrikuntza erakundeak alkarlanean.

Erredakzioa

2016an Igorreko edadeko pertsonen hasi eben bidea Igorre Lagunkoia ekimenagaz, 2021ean Eskolako Guraso Elkarte batu zan eta oin, herritar guztiei zabaldu gura jakie.

Horretarako Udalak 2023ko urtailan lizitazioa atera eta Maraka Koop. Elkarte Txikia, Apitropik eta Ko-garri gizarte barrikuntza erakundeak alkarlanean dabil Bizi Igorren 2030 proiektua garatzen.

Igorre eta igorretarren beharizanak eta erronkak definitute-

ko gai moltso nagusi bi izango dira prozesuaren hasieran: zaintza, bakardadea, konziliazioa eta zahartzea alde batetik; eta ingurugiroa, aldaketa klimatikoa eta lehen sektorea, bestetik. "Anbizino handiko proiektua da, metodologia eta ikuspegi barritzailea erabilten dauana. Igorreko herritarrak parte hartze- ra konbidatu gura doguz, herriko etorkizuna alkarregaz definituten hasteko aukera polita dala- ko" dino Eider Aldape Maraka kooperatibakoak.

Hiru fase

Proiektuak hiru zati nagusi izango ditu. Lehenengo fasea abendu- ra arte izango da eta oin arteko herriko egoera ulertu eta herritarren kezka eta eretxiak entzuteko fasea da. Horretarako, zementiaren 16an eta 20an, herritik txaleko horidunak egongo dira, proiektuaz informetan, eta hilaren 23ra arte, galdetegi bat beteteko aukerea egongo da. Etxe guztietara helduarazoko dabe

eskuorri bat eta berau bete eta herriko eraikin publikoetan dago- zan postontzietan bota daiteke. Online erantzuteko aukerea be badago. 28an, 17:30ean, herritar guztiei zabalduetako hausnarketa saio parte-hartzailea egingo da udaletxe azpiko lokalean.

Bigarren zatia 2024ko urtaila eta zezeila bitartean egingo da, zain- tza eta ingurugiroaren herritarren eta eragileen kezka eta eretxiak oinarri hartuta. 2030eko mugara begira helburu bi definituko dira, "denporan mugatuak eta neurgarriak, errealistak, eta sektore askori eragiten deusienak".

Zezeila eta maiatza bitartean, aurrekoa lortzeako proiektuak sortuko dira era parte-hartzailean, eragileakaz alkarlanean. Proiektuok epemuga zehatza izango dabe eta prozesuaren ebaluaketa kualitatibo eta kuantitatibo egingo da.

Ondoren, maiatza eta gara- garilaren bitartean, proiektua- ren emaitzak eta balorazioa aurkeztuko dira eta hurrengo pausua zehaztuteko eragileen partaidetza sustatzen segiduko dabe.

Bizi Igorren

Bizi Igorren 2030 proiektuaren abiapuntua, 2016an jubiladu talde bat alkatu eta Udalgaz batera Hiri Lagunkoia ekimena Igorrera ekarri gura izan ebenean dago. Orditik Lagunkoitasun Diagnostikoa eta Plana garatu ditue. Bizi Igorre erferenteetako bat izan zan erkidegoan eta 2017an, Toronton (Kanada) mundu mailan erakutsi zan proiektua zahartze- ri buruzko nazinoarteko kongresu baten.

2021ean, proiektuak dimen- sino handiago bat hartzeako beharra ikusi zan eta eskolako Guraso Elkarte integratu eben prozesuan. Kutsadura, adinarte- kotasuna, digitalizazioa eta bes- telako hainbat gairen inguruan hausnartu eta ekintza zehatzak bideratu ziran adinarteko talde honetatik.

Prozesuaren inpaktua ikusita, he- rri- ra zabaltzea eta potentziala han- ditzea izan zan hurrengo pausua.



ZEBERIO

Bertako produktuen azokea egingo dabe hilaren 26an

Erredakzioa

Udalak eta Gorbeialdek, Zeberio eta inguruko neguko produktuak zu- zenean salduteko azokea antolatu dabe hilaren 26rako. Hamaika sal- toki egongo dira Zubialden, 10:00etatik 15:00etara, eta bertan, ogia, gaztaia, barazkiak eta sasoiko beste produktu asko erosteko aukerea egongo da. Azokaz gainera, txosna bat be egongo da.



Argazkia: Gorbeia Euskadi.

IGORRE

Kultur Etxeko bazkide txartela merkeagoa izango da abenduaren 15era arte

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxeko bazkide izateko urteroko kanpaina mar- txan dago. Abenduaren 15era arte lagun txartela 5 euro merkeago izango da. Holan, norbanakoe- k 25 euro pagau beharko dabe; fa- miliako lagun txarteleko 20 euro kide bakotzak eta 14 urtetik behe- rakoentzako prezioa 15 eurokoa

izango da kanpaineak dirauan bitartean. Txartela, 2024ko urtai- laren 1ean hasi daiteke erabilten.

Lagun-txartelak onura honeek dakar: Lasarte Aretoko ikuskizu- netan %25eko deskontua, lau film eta Lasarte Aretoko aukeratutako beste ikuskizun bat debalde ikus- teko aukerea, IKEko ikastaroetan %15eko deskontua eta progra- mazinoia norbere etxean jasotea.



ZEBERIO

Berbalagun egitasmoa Zeberion be ipiniko dau martxan AEK-k

Erredakzioa

Zementiaren 17an, 18:00etan, eskola zaharrea, AEK-k Berba- lagun egitasmoa aurkeztuko dau, herrian Berbalagun taldeak mar- txan ipinteko.

Berbalagun egitasmoko parte hartzaileak talde txikietan batzean dira euskerea praktiketako, dakie- na hobetuteko eta jente barria ezetuteko. Taldekideek eurek ebatzen dabe non, noz eta zerta- rako batu; esate baterako, kafea hartzeako, pasean ibilteko... Izan be, taldeon helburua, lagun giroan

euskeraz berba egitea da.

Berbalagun ekimenaren eus- kerazko mintzapraktikak de- balde dira eta, taldeak berak egiten dituanaz gainera, beste hainbat jardueratarako aukerea emoten dabe: mintzataldeak, familia ekintzak, txangoak, taile- rrak, mintzodromoak, lehiaketak, berbaldiak, mendi urtekerak eta astegoiienpasak, beste batzuen artean. Edade guztietako jentea- rentzat da eta partaideek zozke- tetan parte hartzean dabe eta deskontuak eta opariak izaten ditue.



ARRATIA

Grebara deitzeako argazki kolektiboa egin eban Arratiako Mugimendu Feministak Artean

Arratiako Mugimendu Feministak deituta hainbat lagun batu ziran zehazkiaren 5ean Arteako plazan argazki baten bidez zehazkiaren 30eko Greba Orokor Feministarako deialdia egiteko.



Erredakzioa

Greba azalduteko erabiliko dan bideorako grabazioa be egin eben bertan.

Greba orokor feministeagaz danon bizitzak erdigunean ipintea aldarrikatuko da, danon zaintzeko eta zainduak izateko eskubidea. Horretarako, egungo zaintza sistema gaituzte, indarrean dagoan

zaintzaren merkantilizazioagaz amaitu eta sistema publiko-komunitario feminista bat eregi behar dala aldarrikatzen dabe deitzaileek. Greba "eraldaketa prozesu honen pausu bat baino ez da eta bertan Euskal Herriko gehiengo sozial eta sindikalak adostutako Herri akordioa aurrera erotea eskatzen da. Han, epe laburrerako eta luzerako erronkak zehazten dira".

ZEANURI

Zeanuriko Udalean eskola garraiorako dirulaguntzak eskatu daitezke abenduaren 1era arte

Erredakzioa

Plaza eta auzoen arteko joan-etorriak diruz lagunduten dauz Zeanuriko Udalak, eskola garraiorik izan ez eta ikasketa ofizial baten matrikulauta dagozan herritarrak. Eskerak abenduaren 1era arte aurkeztu daitezke udaletxean.

Dirulaguntzak eskatuteko, Zeanurin errolatuta egon behar da eta 16 urte baino gehiago izan behar dira. 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetako ma-

trikulea eta ordutegia aurkeztu behar dira.

Argazkia: Inocencio Goikuria.



ARRATIA

Indarkeria matxista bikarioa salatuteko elkarretaratzea egin zan Igorren

Erredakzioa

Zehazkiaren 9an, konzentrazioa egin eben Igorre eta inguruko herrietatik joandako 80 bat lagunek, egun bi lehenago gertatutako zazpi urteko Lizarrako umearen hilketara indarkeria matxista bikarioa dala salatuteko -hau da, aitak umea hil ebalu amari min egiteko- eta hildakoaren senideei eta lagunei alkartasuna adierazteko.

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren datuen arabera, Lizarrako umeagaz, 12 dira, 2013tik hona, indarkeria matxista bikarioak Euskal Herrian hil dituan umeak. Aurten, indarkeria matxistaren ondorioz gertatuako bosgarren hildakoa izan zan umea. Horregaitik, "indarkeria matxista lehen mailako arazo politikotzat" hartzea eskatu eta aurre egiteko "benetako neurriak" hartzea exiji-

du eben bertaratutakoek.

Durangoko epaitegira

Aurreko egunean, zehazkiak 8, "Erasotzaile bat ez da aita ona!" lelopean, Arratiako hainbat lagu-

nek, genero indarkeriatik bizirik ateratako Arteako andra bateri eta bere umeari alkartasuna erakusteko Durangoko epaitegira lagundu eutsien, umearen kustodia ebazteko epaiketara.



IGORRE

IV. Azoka Solidariorako bilketea egiten segiduko dabe hilaren 16an eta 30ean

Erredakzioa

Hilaren 16an eta 30ean egongo dira Elkartasun Begiradak alkarreko kideak Lehendakari Agirren, gero abenduko azokan saltzeako, jostailu, liburu, moztorro eta beselakoak batzean.

Laugarrenez egingo dau Igorreko Azoka Solidarioa Elkartasun Begiradak alkarreko jostailuak, liburuak, moztorroak eta abar eskatu ditue eta honek, hilaren 2an ixteko

Aurten, Efelaren alkarreko izango dira irabaziak, aniztasun funtzionaldun pertsonak dabilen Igorreko alkarrea.

Jostailuak, liburuak, moztorroak eta abar eskatu ditue eta honek, hilaren 2an ixteko

aukerea egon zan, zehazkiaren 16an eta 30ean be itxi ahalko dira arrastian zehar, Lehendakari Agirre kalean ipiniko daben postuan, autobusaren geltoki ostean. Azokoa osterara, abenduaren 15ean egingo da arrastiz, leku berean.



U2T UBITE
ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92
e-mail: ubitemat@ubitesl.com

Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A
48140 IGORRE (Bizkaia)

ERA GUZTIETAKO MATERIALAK ERAIKUNTZARAKO

°KARE BIZIA SALGA!

ESTELEHENETIK BARIKURAZ
07:45-12:45
14:00-18:30
ZAPETUETAN
08:30-12:30

ARRATIA, ZEBERIO

Ehunka herritar batu ziran Palestinaren alde egindako elkarretaratzeetan

Erredakzioa

Gernika-Palestina herri ekimenak deituta, Gazako sarraskia gelditu lempean, elkarretaratzeak egin ziran zemendiaren 7an Euskal Herri osoan udaletxe aurreetan. Arratian eta Zeberion be, guztira 370 lagun inguru batu ziran euren herrietako konzentrazioetan: Areatzan (54), Artean (50), Bedian (12), Diman (55), Igorren (50), Lemoan (50), Zea-nurin (48) eta Zeberion (50).

Elkarretaratzeak Palestinako herriari alkatasuna adierazoteko eta Israelen Gazan egiten dabilen sarraskia geldituteko konponbide politiko baten alde izan ziran. Izan be, hilebete eta aste betean Israelgo armadak 10.000 pertsonatik gora hil ditu; tartean milaka ume, eta hori salatutako eta nazioarteko erakundeei hori gelditzeko inplikazioa eskatutako urten ziran milaka euskal herritar kalera protesta egiten.



Arteko elkarretaratzea goiko argazkian eta Zeberiokoa behekoan.

ARANTZAZU

Umeak aterpean egoteko eta olgetako lekua zabalik

Erredakzioa

Zemendiaren 6an zabaldu eban ateak barriro, Arantzazuko udaletxeko kamarako umeentzako jolaslekuak. Leku "atsegina da, egurrezkoa eta epela" alkatearen esanetan, eta jostailuak eta liburuak dagoz bertan. Liburutegiko ordutegian dago zabalik; hau da, astelehenetik barikura, 17:00etatik 19:00etara. Umeak nagusi baten ardurapean egon behar dira.

Arantzazun 8 urte baino gutxiagoko

24 ume dagoz eta ume horreei, batez be neguan, olgau eta egon ahal izateko leku bat eskaini gura eutsen Udalak. "Garai baten, hor goian egon zan jolasleku. Orduko umeak etortzen ziran bertara, baita gurasoak be eta alkar ezetuten eben. Horregaitik berreskuratu dogu idea hori: umei eskaintzeko leku bat astebarruan jolastu eta egon ahal izateko, eta umeek eta nagusiek alkar ezetuteko. Izan be, helburua herria egitea da" azaldu deutso BEGIturi Asier Aburto Arantzazuko alkateak.



ZEANURI

Asterriako jaiak ate joka



Argazkia: Itziar Etxebarria.

Erredakzioa

Zemendiaren 24an, barikua 18:00etan hasiko dira Asterriako jaiak. Gero, 19:00etan, burdinazko ugaraxoaren ahoan txapak sartzeko euren trebetasuna erakusteko aukerea izango dabe Igel Txapelketan. Gauean, 21:30ean, auzo afaria egongo da, izena hilaren 22ra orduko emon behar da 636 378 870 telefonoan, eta ostean mahai-jokoak eta kantuak egongo dira.

Hurrengo egunean ostera, hilak 25, 18:30ean, Julen Etxebarria motozerragaz eta Mikel Etxebarria ardi

mozten ibiliko dira Asterrian klasiko bihurtu dan biko desafioan. Ondoren, herri-kirolek hartuko dabe protagonismoa. 19:00etan, harria tirituteko desafioaren ordua izango da. Gaueko jantziaren aurretik, 20:30ean, odoloste janagaz indarrak barriztauko dabez bertaratu-takoek eta 21:00etan, Jainaga eta Narbaizak ipiniko dabe jantza giroa. Ostean musikea egongo da.

Zemendiaren 30a, San Andres eguna da eta egun horretan ermitan mezea egongo da 19:00etan. Osteko txokolate beroak amaiera emongo deutsee Asterriako jaiak.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazioa: 649 979 115
eta inigoirua@begitu.eus

ARANTZAZU EMAKUMEENGANAKO BORTIZKERIAREN AURKA

ARANTZAZUKO UDALA

ERROTA KOORDINATZAILE BILA DABIL



ZER ESKATZEN DA?

- Goi mailako ikasketak izatea
- Aholkularitzan, berrikuntza arloan esperientzia izatea
- Enpresa eta administrazio arteko programak ezagutzea
- Euskara lan hizkuntza izatea
- Pertsonetikiko enpatia eta lanarekiko proaktibotasuna baloratuko da
- Eskualdeko enpresa ehunaren ezagutza baloratuko da
- Gidabaimena eta kotxea izatea

ZER ESKAINTZEN DA?

- Orain 7 urte sortutako Arratiako garapen sozioekonomikorako proiektu sendo baten parte izatea



ERROTAREN PARTE IZAN NAHI BADUZU, bidali zure kurrikulua info@errotta.eus -era azaroaren 19a baino lehen



Arantzazu



Arantzazu Urola



Arteako Udala



Bedia



DIMA



IGORRE
Herriaren zerbitzua



LEMOA
UDALA



ZEANI
ZURI

begitu
eus

Autokontsumo Fotovoltaikoa

Dirulaguntza handiak
dagoz, aprobetxatu!



Eguzki panelak jarri eta aurreztu
%50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik
proiektu asko eginda!

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA

Memoria teknikoa, osagaien
instalazioa eta legeztapena

944 567 368

www.ekoleds.com

Bedia | Bizkaia

info@ekoleds.com

ekoLEDs



INST. ELECTRICAS

600 565 079



25 AZAROAK

**INDARKERIA
MATXISTAREN
AURKAKO
EGUNA**

Arratiako
Udalen
Mankomunitatea
BARDINTASUN ARLOA
ÁREA DE IGUALDAD

A hand is shown with a white female symbol (♀) drawn on the palm.



AZAROAK 25

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

LEMOA
UDALA

A handprint is visible above the word AZAROAK.

Zazpi Haizetara Euskal Herriko produktuak **94 631 92 43**



Gabonetan ez dakizula zer oparitu?
Gurean aukera asko topaiko dozuz.
Otzaren enkarguak hartzean hasita gagoz,
eskatu zeurea!

Artisautza,
euskal jantziak,
bitxiak...

 Agirre Lehendakaria 11  zazpihaizetara.arratia@gmail.com

egongo da 19:00etan, frontoian. Tomiris mendeku zilegiaren gaineko bakarkako ikuskizuna da. Ardatz nagusizat indarkeria matxistea dauka eta errealitatea eta fikzioa buztartzen dira istorioan. "Gordin bezain sensuala, erreal bezain fantastikoa, zorrotz bezain zolia" da antzezlan hau, Atx Teatroko arabera.

Sorgin-ehiza izan zan feminizidioaren gainean hausnartzeko baina baita barre egiteko aukerea izango da hilaren 26an, domekan, Arteko Kultur Etxean 18:30ean, Virginia Imaz pailazoaren *Akelarre* ikuskizunagaz. Feminizidio historikoaz eta gaurkoaz jarduteaz gainera, zahartzaroari kantu egiten deuto Imazek lan honetan.

Hurrengo egunean, hilak 27, Emma Larretaren *Invisibles* ikuskizuna eta ostean solasaldia egongo dira Igorreko Lasarte Aretoran, 18:30ean. Lanak indarkeriaren benetako biktimei emoten deutse ahotsa, "egoera emozionalen ibilbidea eginaz eta estereotipoak apurtzen lagunduz". Lanaren egile eta aktore lanetan diharduan Emma Larretak berak eraso larri bat bizi izan eban eta hori izan zan inspirazio iturria lan honetarako.

Zeberion be hainbat ekintza prestatu ditue, indarkeria matxistearen kontra sensibilizetako. Holan, hilaren 18an, 11:00etan, umeen sexu abusuak prebeniduteko sensibilizazio berbaldia egongo da; egunean, hilak 23, 18:30ean, *Volar* dokumentala eskainiko da; barikuan, 19:30ean Zeanuriko Etzanderak jantza taldeak emonaldia egingo dau eta 25ean, elkarretaratzea egingo dabe indarkeria matxistea txarresteko.

Beste ekintzak

Kartel bateratuko ekintzak ez dira bakarrak izango hile honetan andren kontrako indarkeriagaz amaituteko preminaz sensibilizetan saiatuko diranak; izan be, alde batetik, talde feministek hainbat ekitaldi antolatu ditue dataren inguruan eta bestetik, ohiko agenda kulturala, morez jantziko da.

Holan, esate baterako, Igorreko Zineklubak, Mounia Meddour zuzendari aljeriarraren *Papicha, sueños de libertad* pelikulea eskainiko dau zemendiaren 16an, 20:00etan Lasarte Aretoran. Filma 1990eko hamarkadan girotuta dago eta kontetan dau Aljeriako egoera soziopolitiko okertu ahala, andren askatasuna murriztuz doala baina Nedjma protagonisteak ez dituala onartuko debekuak eta bere askatasuna eta independentziaren alde egingo daua burrukan, moda desfile bat antolatuz.

Hurrengo egunean be, Areatzan, Udalak *Familia kontziliazioa antzerkiaren bidez* egitasmoa aurkeztuko dau 17:00etan udal-etxean.

Hilaren 24an, Poesia Hegalaria taldeak eskainiko dauan poesia eta musika saioa, andren kontrako indarkeria ezabatze nazinoarteko egunaren harira izango da Igorreko Liburutegian. Domeketako zineak, zemendiaren 26an, 19:00etan, *O corno* pelikulea dakar Lasarte Aretora. Pelikula honek kontetan deusku andra baten bidaia bizirik irauteko eta askatasun bila.

Zemendiaren 30ean Greba Feminista Orokorra

Mobimentu feministearen nazinoarteko agendan zemendiaren 25eko data garrantzitsua bada, gurean, aurtengo zemendian, badago mobimentu feministeak egindako beste deialdi bat mobilizazinoetarako. 25ean, indarkeria bako bizitza libreak bizi ahal izatea bada aldarria, 30ean, zaintza eskubide kolektiboaren aldekoa izango da burrukea, Greba Feminista Orokorren bitartez. Hori dala-ta, Arratiako Mugimendu Feministak grebara deitzeaz gainera, hainbat bilera egin ditu grebaren gaineko informazioa partekatzeke.

Holan, zemendiaren 10ean, Gazte Asanblada irekia eta argazkia egin zan Igorreko Kiñu Gaztetxean eta 13an, Lemoako Karbie Gaztetxean, informazio batzarra. Hilaren 15ean be, Diman, gre-

barako pankartea atondu eta herrian kartelak ipini eta diptikoak zabaldu ziran.

Talde feministek, herrietan batzar informatiboak egiten jarraituten dabe hamabostaldi honetan be. Holan, hilaren 16an, 18:30etik 19:00etara, Kafrangak talde feministeak grebaren gaineko batzar informatiboa egingo dau *Eta Areatan zer?* izenpean Kultur Etxean, hurrengo egunean, zemendiak 17, 18:30ean, Orratzak neska* tal-

de gazte feministeagaz solasaldia egongo da Areatzako Laminetxe Gaztetxean eta grebaren gainean berba egiteko tarte egongo da, 19an ostera, Arratiako neska* gazteek agerraldi irekia egingo dabe 17:00etan Lemoako Plaza Gorrian, Greba Feminista Orokorra batzeako deia egiteko. Baita, "gizonak, instituzino publikoak eta enpresa pribaduak seinaleto, eta zaintza eskubide kolektibo aldarrikatuteko" be.



"Zemendiaren 25ean, indarkeria bako bizitza libreak bizi ahal izatea bada aldarria, 30ean, zaintza eskubide kolektiboaren aldekoa izango da burrukea, Greba Feminista Orokorren bitartez"

| | |
|---|---|
| JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea |
| Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima | Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre |
| Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio | Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza |
| Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri | I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre |

UNDURRAGAKO URTEGIAK 50 URTE

Undurragako urtegiak 50 urte bete ditu

Zeanurin kokatzen dan Undurragako urtegiak 50 urte bete ditu hile honetan. Uren bonbeoa egiten lehenagotik hasi baziran be, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren liburuetan adierazoten danez, "presatik ubidera ura lehen aldiz 1973ko zemendiaren 6an bialdu zan".

Jon Urutxurtu

1970 eta 1973 urteen artean luza-tu ziran urtegia eregiteko obrak eta lanak egiteaz OSEPSA enpresea arduratu zan, Rafael Benavente Sáez-en poiektuan oinarrituz. Kostua 227.084.166 pezetakoa izan zan.

Obrak hasi aurretik eta hasi ostean be, apurka-apurka Undurraga eta Alkiber auzuneetan bizi ziran zeanuriztarrek euren etxebizitzak itxi behar izan ebezan eta herriko beste etxebizitza batzuetara edo beste herri batzuetara joan behar izan ziran bizitera. Gogorra izan zan undurragatarrentzat eta alkibertarrentzat euren betiko etxebizitzetatik alde egin beharra.

Undurragako urtegia honako helburu honegaz eregi zan: Bilbo Handia hornitzen dauan Venta Altako (Arrigorriaga) araztegiara ura bialtzea. Urtegiak 1.850.000 metro kubiko ur biltzeako eukierea dauka eta Arratia eta Barazar erreken eta

beste erreka txiki batzuen urak hartzean ditu; honeez gain Urrunaga eta Uribarri-Ganboa arabar urtegietatik, lurpeko ubide baten bidez, Undurraga auzoan dagoan Barazar zentral hidroelektrikora –1958an Francok inaugurau eban– bialtzen diran urak be hartzean ditu. Barazar zentral hidroelektrikoaren turbinetatik igarotako urak Arratia errekarara doaz, Undurragako presan biltzeako. Hemendik tutuerien bidez eroaten dira Venta Altako araztegiara. Baina, aurretik tutuetatik doan ur hori eta bere indarra pre-searen aurrez aurre dagoan zentral hidroelektriko txiki batetik –1998ko urri bigarreanean ipini zan marxan– igaroko dira, argindarra ekoizteko.

2018an Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Undurragako pre-searen *by-passa* ipini eban marxan: 1,3 kilometroko lurpeko galeria da eta urtegiaren ezkerretatik igaroten da. Partzuergotik dinoenez, *by-pass* honek gerta daiteken edozein ez-



beharren aurrean Bilboko metropoli eremuko hornidura bermea indartzen dau eta pre-searen segurtasuna nabarmen hobetzen dau. Obra hau 2014ko urri lehenengoan hasi zan eta 11.722.330,49 euroko inbersinoa izan eban.

Urtegiaren beste balio batzuk

Urtegiak eta bere inguruak balio paisajistiko eta naturalistiko balio-tsuak eskaintzen ditu, eta aisialdirako eskaintzen dituan aukerak ondo kudeatuz Zeanurirako gune onuragarria izan daiteke.

Bere uretan hainbat arrain bizi da eta kotoa danez, arrantza sasoa

zabaltzen danean arrantzaleak hurreritzen dira bertara.

Udagoianean eta negu aldean mota desbardinatoko hegaztiak geratzen dira urtegiaren: ahateak, antzarak, ubarroiak, lertxoinak... Oin modan dagoan *birdinga* praktiketako leku egokia da eta ondo egongo litzateke horretarako behatoki batzuk jartzea.

Inguruak eskaintzen dauan edertasuna dala-ta, ez dira gitxi gune honetan zehar oinez zein bizikletaz paseoan ibiltzen diranak; gainera 2019. urtean egurrezko pasarela bat zabaldu zan eta urtegia bi aldeetatik inguratu daiteke. Dana

dala, ibilbidea ondo seinalizatzea falta da.

Ibilbidean zehar eta inguruko beste toki batzuetan hainbat zugatz mota ikus daiteke eta ez litzateke txarto egongo espezie desbardinak identifiketako karteltxoak ipintea.

50. urtebetetzea aprobetxauz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Zeanuriko Udalak, alkarlanean, aukera ederra daukie urtegiak eta bere inguruak eskaintzen dabezan posibilitade potentzialak aztertze-ko eta, aldi berean, Undurraga eta Alkiber auzoetan euren etxebizitzak ixtera behartuta topau ziranei erre-konozimentua egiteko.





EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ


Ubideko Udala



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ

Azaroaren 25a
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Bediako Udala



Diratzena Herri Ikastetxeak

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa

herrikoa

| | |
|---|--|
| <p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p> | <p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea</p> <p>Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p> |
|---|--|



AZAROAK 25



Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna



ERRATA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

3. FINALAURREKOA
AZAROAK 25

LEMOA UDAL KIROLDEGIA
17:00

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2023

Aissa Intxausti Aburruza, Ibai Amillategi Omaetxebarria, Josune Aramendi Perez, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Bartra Arenas eta Onintza Enbeita Maguregi.
Gai-jartzailea: Idoia Anzorandia Kareaga.








www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

begitu
eus



1.317 JARRAITZAILE



393 JARRAITZAILE



2.482 LAGUN



begitu **20**
urte

**BAIETZ
30 LAGUN
BARRI EGIN!**

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

Azaroak
25



**INDARKERIA
MATXISTAREN AURREAN
ZAINDU DAIGUN ALKAR**



IGORREKO
UDALA



Erabili meloia
Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



Euskadi, mugatzen, bion comin
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

f t i www.kontsumobide.eus




EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ

**Zeanuriko
Udala**



ZEANURI



Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZEN ALDE



TA



BI

Dima



IDARKERIA MATXISTARIK EZ



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ



MENDI LASTERKETEĀ

Lemoatx Trail mendi lasterketea jokatu da hilaren 19an herriko historiari lotutako parajeetatik

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail mendi lasterketea jokatu da hilaren 19an. Lasterketa bi dira. Lasterketa luzeak 24,2 kilometro eta 1.300 metroko desnibela dauka; baita martxa luzeak be, ibilbide bera daukie eta. Lasterketa laburrak, 16,4 kilometro eta 910 metroko desnibela dauka, eta lasterketa luzearen hasikerako ibilbide bera dauka. Martxa laburrak barriz, 8,3 kilometroko ibilbidea dauka, lasterketa eta martxa luzearen ibilbidearen bigarren partetik doana.

Erredakzioa

Lasterketa egunean, jai giroa egongo da herrian, musikea, taloak eta kirol materialaren salmahaiakaz.

Ganzabal Mendi Taldeko Iñigo Gonzalez Laskibarrek azaldu deusaz BEGITU lasterketearen zehaztasunak.

Ze espektatiba daukazuek zazpigarren edizino honetarako?

Parte-hartze handia espero dogu. Martxa luzea urrietan bete zan eta lasterketa modalidade bietan be ia beteta dago partaideen kopurua. Martxa laburrerako barriz, martxa familiarra danez, azkenengo astean emoten dau jenteak izena, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta. Itxaron egiten dabe.

Igaz, 900 personara heldu ginan eta 900era heltzea erraz ikusten dogu. Gehieneko muga 1.000ean dago eta ez gara urrun ibiliko.

Arratiarrakaz batera beste leku batzuetako lasterkariak be egongo dira, ezta?

Lemoatx Trail Bizkaiko Mendi Lasterketako Ligan dago eta lasterketari gehienak ingurukoak izan arren, Durangaldetik, Bilbotik eta Barakaldetik be etorten dira batzuk. Baita Gipuzkoatik, Iruñealdeatik, Iparraldetik eta Kantabriatik be, besteak beste. Lasterketeak izena hartu dau eta gero eta jente gehiago dator kanpotik. Baiezatatuta daukaguzan korrikalarien artean aitatu neukez, Oihana Azkorbebeitia, urtero etorten dana, eta Ander Iñarra. Biak Merrell taldekoak.

Lemoatx Trailen parte hartzean dabenek errepetidu egiten dabe orduan. Zer dauka berezi Lemoatx Trail-eko ibilbideak?

Ahalegindu gara gurdiek antxina erabilten eben bideak errekerupertan. Ibilbide osoak daukaz ezaugarri historikoak, herriaren Historiagaz lotutakoak. Holan, lehenengo kilometroetan, Larrabeiti auzora daroan zubi erromatarraz egiten dogu topo. Gero, basora sartzean gara antxina baseritarrek erabilten eben berreskuratutako bidezidorretatik. Ibilbidetik gorantz jarraituz, Aramo-



tzera heltzeako metro batzuk falta diranean, Pagotxuetako (511 m) tontorra dago. Tontorra alde batera itxiz, Aramotz auzora heldu eta Belaxikietako bidea hartzean dogu. Belaxikietako tontorretik, ibilbideko zatirik teknikoenean, Legarmendiko karsta ikusi daiteke. Barriro Aramotzera bajatu aurretik, beheantza goazala Elorriaga auzoa dago. Bertan, III. eta IV. mendeko "gizon-hari" erromatarrek ikusi daitezke. Antxinako bidezidorretatik herrira heltzean gara barriro. Lemoatxara daroan aldatz gogorra hartuko dogu gero eta Lemoatxan, herriko historiagaz egiten dogu topo. 1937ko Gerra Zibileko errastuak ikusiko doguz, berreskuratu diran lubaki guztietatik pasauz. Beherantzako bidea hartu eta herriko kanposantuko atzekaldetik, itxita dagoan harrobira heltzean gara. Hortik San Inazio auzora eta jarraian helmugara, herriko eskolan.

Ibilbide ederra izateaz gainera, herrian be giro ona egoten da, ezta?

Bai, jai giroa egoten da. Aurten be egongo dira salmahaiak mendiko materiala eta erropak saltzeako, talogilea be egongo da eta musikea.

Lemoatx Trail lasterketak Etiketa Berdea dauka. Horrek ekarri dau aldaketarik antolaketan?

Aldaketa handirik ez, ze Ganzabal Mendi Taldeetik jaiotakoa da Lemoatx Trail eta natureagazko konpromiso, konzientzia eta errespetuagaz jaiotako. Etiketa Berdea konpromiso bat da, bardintasunean, jasagarritasunean, eta alkartasunean oinarritutakoa, eta alde horretatik ez deusku suposatuta gauza handirik. Esate

baterako, lehenago be, ibilbideak marketako, marka biodegradagarriak erabili izan doguz.

Baina hobetu egin dogu aurten. Ez dogunez hondakinik sortu gura, aurten derrigortuko jakie parte hartzaileei euren edalontzia eroatera.

Holango lasterketa batek, jente askoren lan handia behar dau, ezta?

Bai, lantalde handia daukagu, boluntario talde handia. Aurten zazpigarren edizino da eta hasikeran baino errazagoa da prestatzea, lehenengo edizinoan, lasterketea 16 kilometrokoa eta partaideak laurhun baino gixiago izan arren.

Boluntarioen lana azpimarratu gurako neuke. Eurak barik ezin da aurrera atera holango lasterketa bat. Aurteko urtean, 88 boluntario egon ziran, eta aurten be hortik ibiliko da. Lasterketa aurretik eta egun berean egiten dabe lan. Lehenengotik, ibilbideko zati batzuk garbituten doguz; hiru egun lehenago, hasten gara ibilbidea marketan, eta gero lasterketa egunean, ekitaldi guztiko materiala eta muntaia egiten lagunduten dabe. Behin lasterketa hasita, baxotza bere puntuak ipinten da: korrikalariak ez galtzeako, bidekurutzeak erreforzau egiten doguz eta. Eurak barik ezin izango zan ekitaldi honek daukan emaitza lortu.

Martxa txikerrean egoten dan parte hartzea be aitatu gurako neuke. Herriaren erantzuna %100ekoa da. 8 kilometro dira, eskolatik urten eta Lemoatxako lubakiak ikusi eta buelta. San Inazio auzotik be pasetan gara. Hasiera gogor bat dauka: aldatza, baina merezidu dau.

FUTBOLA



Arratia Ak Soduperen kontra urri bigarrean jokatuako partidua.

Gizonezkoen Arratia A bosgarren postuan dago

Gizonezkoen Arratia Ak atzen minutuetan sartutako hiru golei esker 3-1 irabazi eban Somorrostoren kontra hilaren 11n Urbietan jokatuako atzen jardunaldian.

Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia Ak hilaren 11ko arrastian jokatu eban Somorrostro A taldearen kontra eta aurreko hiru partidua bardindu ostean 3-1 irabazi eban. Arratia 0-1 galtzean hasi zan baina 89 eta 90 minutuetan sartu ebazan 3 golak etxeko taldeak eta garaipena lortu. Aurreko partidua husna bardindu eban etxetik kanpo Bermeo taldearen kontra. Zortzi jardunaldien ostean 13 puntu ditu Igorreko taldeak eta bosgarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau lurretako taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 17:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak be 11ko arrastian jokatu eban Durangon Ezkurdi A taldearen kontra eta denporaldiko bigarren garaipena lortu eban 1-2 irabazita. Aurreko astegienerako partidua 0-2 galdu eban etxean Sondika A taldearen kontra. Zortzi jardunaldien ostean 8 puntu ditu Arratiak eta hamabigarren postuan dago oin, jatsiera postuak itxita. Datorren partidua Urbietan jokatu dau sailkapeneko atzen postuan dagoan Gernika Bren kontra hilaren 18an, arrastiko 15:45ean.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 12ko goizean jokatu eban Valladoliden Parquesol taldearen kontra eta galdu barik bost partidua egin ostean 1-0 galdu eban talde arratiarrak. Aurreko egunean joan ziran arratiarrak eta gaua egin eben Valladoliden. Aurreko

jardunaldian 3-0 irabazi eban momentu haretan bigarren postuan egoan Añorga taldearen kontra. 10 jardunaldien ostean Arratia zazpigarren postuan dago 17 puntugaz. Datorren astegienerako deskantsua daukie eta hilaren 25-26ko astegienerako jokatu dabe hamaikagarren jardunaldiko partidua, etxetik kanpo hau be, UD Logroñes taldearen kontra.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 11n jokatu eban etxetik kanpo Adiskideak taldearen kontra eta aurreko astegienerako egin eban lez, erraz irabazi eban partidua 1-7ko emaitzeagaz. Aurreko astegienerako 10-0 irabazi eban Plentziaren kontra. Sei jardunaldien ostean 8 puntu ditu Arratiak eta sailkapeneko zortzigarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Berrio-Otxoa A taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 18:15ean.

Lemoako Harrobi

Hilaren 11ko arrastian jokatu eban Lemoako taldeak Arlonagusian Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra eta atsedenera 1-0 heldu baziran be bigarrean bardindu egin eban Umore Onak. Aurreko partidua 3-1 galdu eban etxetik kanpo Ermua A taldearen kontra. Zortzi jardunaldien ostean 11 puntu ditu Lemoako Harrobik eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Urduliz B taldearen kontra hilaren 19an, arrastiko 18:30ean.

PELOTEA

Lemoako klubeko hamabost pelotarik hartuko dabe parte Bartzelonan estatu mailako andren binakako txapelketan

Pelotari gehien eroango dituan kluba Lemoako Esku Pilota Taldea izango da.

Erredakzioa

Gipuzkoa, Nafarroa, Errioxa, Valentzia eta, jakina, Bartzelonako pelotariak neurtuko dira, kirolean eta batez be pelotan, andren eskubideak aldarrikatzeko sortutako txapelketan. Txapelketea, zemiendiaren 18 eta 19an jokatu da, 1992ko Joko Olinpikoetarako egin zan frontoian. Ruben Belokik urrea lortu eban frontoi horretan.

Txapelketearen zehaztasunak Mikel Aurrekoetxea Amuriza, entrenatzaile eta kudeatzaileak emon deusaz BEGITU.

Federazio askotako pelotariak hartuko dabe parte Bartzelonako txapelketan. Zelan jokatu da?

Binakakoa izango da. Oindino ez deuskue bialdu txapelketako ordutegi eta bikote antolakuntzea, baina hurrengo egunetan bialduko deuskuela esan deuskue. Esan behar da aukera polita izango dala gure pelotariarentzat, ze frontoi hori Bartzelonako 1992ko Olinpidetarako egin zan eta bertan, Belokik, Imanol Agirre arratiarrak eta beste jokalarik mitiko batzuek jokatu eben. Historikoa da. Eta bertan izango dira Lemoako klubeko 14 eta 16 urte bitarteko, 15 neska pelotari.

Gure bidaia zemiendiaren 17an



hasiko da. Arrastiko 14:30ean urtengo gara Lemoatik Bartzelonarantz. Txapelketako lehenengo fasea hurrengo egunean jokatu da: ligaxkak. Eta domeka goizean, bigarren faseko partiduak jokatu dira: laurdenak, finalurrekoak eta finala. Espero dogu gure pelotariak bigarren fase horretara heltzea, baina ez bagara heltzean be bertan egongo gara ikusten, eta beste pelotariak animetan.

Zelan sortu zan txapelketa honetan jokatzeko aukerea? Bartzelonako Euskal Pilota Federazioa hartu-emonetan ipini zan beste autonomia erkidegoetako pelota federazioak; gure kasuan, Bizkaiko Federazioagaz, eta Bizkaiko Federazioa, gugaz ipini zan hartu-emonetan, Lemoako klubagaz, Bartzelonako

txapelketan parte hartzeako.

Lemoako Esku Pilota Taldeak 18 bat neska pelotari ditu. Eta esango neuke Bizkaia mailan lehenengoetarikoak garala kopuru horretara heltzean eta Euskal Herrian erreferente handienetakoa. Eta baiezkoa emon geuntsan Bizkaiko Federazioari pentsetan dogulako guk andren pelotan badaukagula indarra, eta txapelketa horretan egon gura dogulako.

Txapelketearen helburua, kirolean eta batez be euskal pelotan, andren eskubideak aldarrikatzea da. Oin dala hamarkada bat baino gitiagora arte, andrek ezin eben euskal pelota federatuan jokatu, bai eskola kirolan baina ez federatuan, baina apurka-apurka persona askoren indar eta ilusinoagaz burruka hori irabazi egin da. Txapelketan,

ustez, oso ondo. Maila bastante ona daukagu.

Malen Mena: Bai, hainbat torneotan jokatu dogu baina Bartzelonako oso desbardina da, sano berezia... Ni oso urduri nago.

Irabazteko esperantzeagaz zoazie? Zelan ikusten dozuez zeuen buruak?

M.G.: Ni prest nago jokatu eta dana emoteko. Irabazten badogu, itzel, eta ez badogu irabazten, ondo pasetan goaz.

M.M.: Nik uste dot Lemoako Esku Pilota Taldean oso maila altua dagoala, eta garanez pelotari

hainbat autonomia erkidegotako klubetako pelotariak egongo dira: Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Bartzelonakoak, nafarrak, Errioxakoak, Valentziakoak... Han, andra pelotariak batu, hartu-emonak sortu eta pelotea sustatuteko pausak egingo dabez.

Oin arte lortutakoaz konziente eta aurrera egiteko bideak zabalduz, ezta?

Bai. Nik uste dot txapelketa honek bideak zabalduko dituala. Bai pelotarien artean, bai federazioen artean, eta bai entrenatzaile eta kudeatzaileen artean be hartu-emonak sortuko dira-ta. Hartu-emon horreek urtean zehar ez galtzean eta garatuten saiatuko gara. Eta akaso, hurrengoan posible izango da txapelketa hori, Lemoan egitea.

Bidaia hori, astegoen hori, talde moduan egitea, oso garrantzitsua da. Aitatu gura dot gure kluba pelota udalekuak egin dituan lehenengoetariko kluba izan dala. Astegoenpasa bat izan zan ikasturte amaieran eta hau be antzera hartzean dogu.

Talde handia zoazie, hamabost pelotari!

Bai. Eta honegaz espero doguna da andren pelotea bultzatzea, eta aldarrikatzea Lemoako Esku Pilota Taldea egiten dabilen indarra andren pelotearen alde eta euskal pelotearen alde, orokorrean.

Azkenengo hamarkadetan gure kluba asko handituten dabil. Beti izan da oso klub indartsu eta potentia. Edo holan hartu dabe Euskal Herri mailan pelotari onak urten diralako hemendik; baina kasu honetan, pelotari onak aterateaz gainera, parte-hartze aktiboa sustatu gura dogu, eta espero dogu indar eta ilusino hori beste klub batzuei be transmitidutea.

kopuru handienetakoa daroan kluba... Ni oso harro nago klub honetan jokatzeko.

Zelan doaz entrenamentuak?

M.G.: Entrenetan dogu pelotan astelehen eta eguaztenetan eta martitzenetan, "fisikoa" deritxana daukagu.

M.M.: Maialenek esan dauan moduan, martitzenetan fisikoa daukagu eta ni oso pozik nago horregaz. Andren entrenamentuetan fisikoa aurtan hasi da. Ea segiduten dauan aurrerantzean! ze, nire ustez, esku pelotan maila ona lortuteko, fisikoa oso inportantea da.

KIROLAK

Kirol asteak aurrera darrai Lemoan

Erredakzioa

Aste erdian hasi da hilaren bigarren hamabostaldia eta Lemoako kirol eta ariketa fisikoaren astean, oin arte jarduera ugari egin diran arren, hainbat dagoz egiteko, batez be zapatu-domekan. Zapatuan, batez be ume eta gaztetxoentzako kirolak egongo dira kiroldegian eta eskolan eta domekan, hilak 19, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail-aren zazpigarren edizinoak emongo deus amaiera asteari. Lasterketa bi eta mendi martxa bi izango dira eta jai giro ederra egongo da herrian. 1.000 lagunek emon dabe izena.

Zemiendiak 16, eguena

19:00etan, 16 urtetik gorakoentzat Lemoako Binakako I. Pentatloia kiroldegian.

Zemiendiak 17, barikua

18:30ean, eguraldiak lagundu ezker, Durundibarri Dantza Taldearen eskutik, Dantzan Plazaz Plaza, Plaza Gorrian.

Zemiendiak 18, zapatua

09:00etatik 13:00etara, 12 eta 16 urte bitartekoentzat padela eta frontenisa kiroldegian. 11:00etan, HH2 eta DBH4ko bitartekoentzat, IV. Duetloi Txikia eta 7 urtetik gorakoentzat bizikleta ginkanea ikastetxean. 16:30ean, Lemoako pelotarien erakustaldia kiroldegian eta musika, pintxo-potea, errifak eta sariak.

Zemiendiak 19, domeka

Lemoatx Trail. 08:00etan, mendi martxa luzea (24 kilometro). 09:15ean, lasterketa luzea (24 kilometro). 10:00etan, lasterketa laburra (16 kilometro). 10:45ean, mendi martxa laburra (8 kilometro).

Bartzelonan "dana emoteko prest" dagoz Lemoako jokalariek

Lemoako Esku Pilota Taldeak, 14 eta 16 urte bitarteko 15 jokalarigaz hartuko dau parte, zemiendiaren 18 eta 19an, Bartzelonako Vall d'Hebron frontoian jokatu dan estatu mailako andren Binakako Euskal Pelota Txapelketan.

Erredakzioa

Maialen Gaston Barroeta eta Malen Mena Aldekoa dira Bartzelonara joango diran jokalarietako bi. Euren gaztetasuna gorabehera, ez da lehenengo aldia txapelketa bat jokatzeko dabena, biek jokatu izan dabe-ta, Emakume Masters Cup-eko torneoren bat. Bartzelonara joateko bezperetan, urduri baina ilusinoz beterik dagoz Le-

moako pelotariak.

Txapelketa baten zuen lehenengo esperientzia izan ez arren, txapelketa hau berezia da ezta? Zeintzuk dira zuen sensazioak?

Maialen Gaston: Bai. Biok jokatu dogu Emakume Masters Cup-ean eta han be maila oneko pelotariak dagoz. Jokatu dogun lehenengo urtea izan da eta, nire



Malen Mena eta Maialen Gaston.

| KIROL ASTEAK 2023 | |
|---|---|
| Zemiendiak 16, eguena 19:00etan, 16 urtetik gorakoentzat Lemoako Binakako I. Pentatloia kiroldegian. | Zemiendiak 17, barikua 18:30ean, eguraldiak lagundu ezker, Durundibarri Dantza Taldearen eskutik, Dantzan Plazaz Plaza, Plaza Gorrian. |
| Zemiendiak 18, zapatua 09:00etatik 13:00etara, 12 eta 16 urte bitartekoentzat padela eta frontenisa kiroldegian. 11:00etan, HH2 eta DBH4ko bitartekoentzat, IV. Duetloi Txikia eta 7 urtetik gorakoentzat bizikleta ginkanea ikastetxean. 16:30ean, Lemoako pelotarien erakustaldia kiroldegian eta musika, pintxo-potea, errifak eta sariak. | Zemiendiak 19, domeka Lemoatx Trail. 08:00etan, mendi martxa luzea (24 kilometro). 09:15ean, lasterketa luzea (24 kilometro). 10:00etan, lasterketa laburra (16 kilometro). 10:45ean, mendi martxa laburra (8 kilometro). |

ZINEKLUBA

Papicha, sueños de libertad
pelikulea proiektuak da
Igorreko Zineklubean**Erredakzioa**

Zemendiaren 16an, 20:00etan izango da Igorreko Zineklubak emongo dauan ikasturteko bigarren filma, bertan karteldegitik kanpo dagoan pelikula interesgarriaren bat eskaintzen da hilean behin, Lasarte Aretoan.

Mounia Meddour (Mosku, 1978) zuzendariaren 2019ko *Papicha, sueños de libertad* pelikulea izango da zehemendian ikusi ahal izango dana. Meddour zinema eta dokumental zuzendari frantziar-aljeriarra da. 2019an estreinatu eban bere lehen film luzea, *Papicha, sueños de libertad*, Aljeriako 90eko hamarkadan "Hamarkada baltza" deitutakoan bururatu eta eutsi eben andra

aljeriarren omenez.

Sinopsiak dinoenez, "Nedjmak 18 urte ditu eta Aljerreko unibersidade urian bizi da. Estilista izatea dauka amets, eta ez dau gura Aljeriako gerra zibileko gertaera tragikoek bizimodu normala egitea eta gauean Wassila lagunagaz urtetea eragozterik. Ilunabarrean, uriko alanbre-hesiaren sarean artean barreatzen da bere lagunik onenakaz, bere sorkuntzak "papicha" aljeriarrei saltzean deustien diskotekara joateko. Herrialdearen egoera politiko eta sozialak okerre egiten dau eten barik. Nedjmak uko egiten deutso erradikalen debekuak onartzeari, eta bere askatasunaren eta independentziaren alde bururatuzea ebazten dau, moda desfile bat antolatuz".



ZEZILI DEUNA

Kalejirak eta kontzertuak
egongo dira musikearen
eguna ospatuteko**Erredakzioa**

Zezili Deuna, musikearen zaindariaren eguna da hilaren 22an, eguaztena, eta horren harira, kontzertu, kalejira eta musika emonaldiak egongo dira hurrengo egunotan. Holan, Arratiako Musika Eskoleak eta Zeanuriko koraak kaleak hartuko ditue eta Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Areatzako Bandak, kontzertuak eskainiko ditue, besteak beste.

Zeanurin aurreko zapatuan ospatuko dabe musika zaindariaren eguna. Zemendiaren 18an, Zeanuriko kora kalean ibiliko da kantuan eguerdiko 12:00etatik aurrera eta ondoren bazkaria egingo dabe.

Artean, Santa Zezilia bigarrenean, hilak 23, ospatuko dabe eguna. Hori dala-ta, 18:30ean,

Arratiako Musika Eskolako 5 eta 10 urte bitarteko ikasleek kalejirela egingo dabe eta euren errepertorioko pieza bat joko dabe frontoian. Irakasleek beste pieza bat jo eta ostean, trikitixen soinuagaz txokolatea egongo da hurreratzetan diranentzat.

Kontzertuak

Ospakizun gehienak baina, zapatuan, hilak 25, izango dira. Egun horretan, 19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua egongo da Areatzako eleizan.

Zapatu horretan bertan, Igorreko eleizan, 20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Bilboko Sanfran Koruek kontzertua eskainiko dabe. Miren Zubieta-zen zuzendaritzapean kantauko dau Luis Iruarizaga Abesbatzak, Marta Diaz Iriondo pianojoleak lagunduta.

IKUSKIZUNA

Kutxa artean ikuskizuna
Igorreko Kultur Etxean**Erredakzioa**

Hilaren 24an, arrastiko 18:00etan egongo da Teatro Paraiso Antzerkiaren *Kutxa artean* umeentzako ikuskizunaz gozatzeko aukerea Lasarte Aretoan. 5 euroko prezioa daukie sarrerek. Bazkideek doban ikusteko aukerea eukiko dabe.

Ikuskizun honek jolasaz gozatzera, lagunarteko zailtasunak gaitzera eta, beste gizaki batzuek batera, edozein amets lor daitekeela irudikatzen gonbidatzen gaitu.

Kutxa artean ikuskizunak mundua abentura handiak bizitzeko kutxa handi bat dala iradokitzen dau, eszenalekua, Teatro Paraiso Antzerkiarentzat 45 urteko ibilbidean izan dan legez.

"Umerez betetako istorio honetan kutxa batzuetan bizi diran

lagun bik leku ameslarietarako bidaiak imajinatzen dabez, euren sormen harrigarria dala-ta. Euren bizitza, jolasaren, bizikidetzaren, eguneroko burruken eta adiskidetzaren artean pasetan da.

Bartolomeus eta Komino pozik bizi dira alkarren ondoan egoteagaitik, kutxak lapurtzen deustiezan eta bien arteko adiskidetasuna zailtzen ipintzen dauan hirugarren personaia bat agertu arte.

Alkarregaz topauko dabe, egun batean zoriontsu izan ziran lekura bueltetako bidea, balioetsuena geratu jakie ikustean: adiskidetasuna eta imajinetako gaitasuna.

Antzerki familiarraren klasiko bat Europako dramaturgia garai-kidean, Teatro Paraiso Antzerkiaren proiektu artistikoaren metafora be izan dana".



GAZTETXEAK

Kiñu Gaztetxearen
okupazioaren
hamargarren urteurrena
ospatuko da X. Rokupan**Erredakzioa**

Hilean, hamar urte bete dira lehengo gazteak gaur Kiñu Gaztetxea dan eraikineratu sartu eta okupatu ebentik. Ordutik, urtez urte antolatatu dabe Rokupa jaiadia. Ezaugarri nagusiak, musika talde guztietan andren parte-hartzea bermatutea eta kontzertuak tabernetan egitea izan dira. Gitxi gorabehera, holan jarraituko dau izaten X. Rokupak, baina hamargarrena izanda, eskaintzea handitu dabe Igorreko gaztetxeak hilaren 17 eta 18rako.

Okupazioaren urteurrena dala-ta, Kiñu Gaztetxeak asanbladeak adierazo dau: "Sabadell Bankuaren eta epaileen mehatxu artean, ezin jakin amets honek zenbat iraungo dauan". Izan be, gaztetxearen kontrako epaiketea aurtengo kursoan

izan daitekeala uste dabe. Beraz, gogorazoz dabe, "gozatu eta burrutatuteko urtea" dala eta "amets honetako ateak zabalik mantenduteko, Arratiako gaztearen indarra" beharko dabela.

Zemendiak 17, barikua

19:30ean, IZARE poesia akustikoa Axular Herriko Tabernan.

Zemendiak 18, zapatua

12:00etan, asanbladako lehen belaunaldiaren mahai-ingurua Axular Herriko Tabernan.

14:30ean, bazkaria Kiñu Gaztetxean. Sarrerek Axular eta Kukumán hilaren 16ra arte (5 euro).

18:00etan, Ane Lindane umoregilea Kukumán.

19:00etan, bafle-poteoa herritik. 21:00etan, kontzertuak Kiñu Gaz-

POESIA

Musika
eta poesia
errezitaldia
Igorreko
liburutegian**Erredakzioa**

Igorreko Poesia hegalaria taldeak musika eta poesia errezitaldi bat eskainiko dau zehemendiaren 24an, 20:00etan, Igorreko Liburutegian.

Pablo Cabañas, Ana Juez, Iker Allur, Jorge Trueba, Raquel Bartolome eta Irune Elexpek hartuko dabe parte emonaldian.

Gainerako literatuta generoen aldean, poesiari garrantzia gitxi emoten jakola eretxita, sortu zan Igorren Poesia Hegalaria taldea. "Gure inguruan holango proiektu bat egiten dan lehen aldia da eta horregaitik ahalegin berezia egiten da giro erakargarria eta inguratzailea sortzeako, material personalak eta sormena erabiliz. Holan interes eta ilusinoz, jarduera interesgarriak egin daitezela erakutsi da" azaldu eutsan martian BEGITURI Irune Elexpe taldekoak. Topaketa poetiko bakoitzean mikrofonoa gura duanaren esku ipintzen dabe, norberaren edo beste egile batzuen poesia errezitatuko, eta oingo saio honetan be holan izango da.

tetxean: Eire, Amooma, Gora Etorri eta DJ Matxinada.

2000ko hamarkadea bueltan
Karabien

Zemendiaren 24an, barikua, 2000ko hamarkadako giroa bueltatuko da garai horreek be ezetu ebazan Lemoako Karabie Gaztetxera. Gaez izango da jai, 21:00etatik aurrera, eta hamarkada haretako jai estiloan jantzita joateko deia egin dabe, lehiaketea be egingo da-ta. 22:00etan barriz, karaokea egongo da eta gero Patxeta Sound System-ek jarraituko dau gauagaz. "Photocalla, pontxea, "mamarratxeoa" eta sorpresa gehiago" promestu ditue.



BERTSOLARITZEA

Bertsolari Txapelketako atzen finalaurrea Lemoan izango da hilaren 25ean



Lemoako kiroldegian izango dan bertso-saioko kartela.

Erredakzioa

Txapelketako sei kanporaketak jokatu ostean, bosgarrena lgorren izan zan, ebatzita geratu dira finalurrekoak. Zemendiaren 11n izan zan lehenengoa, Berrizen eta 25ean Lemoan izango da atzena.

Lekeitioko zemendiaren 1eko atzen kanporaketearen ostean, osotu zan finalurrekoetan kantatuko daberen bertsolarien zerrendea. Sei kanporaketetako irabazleak eta puntuazinoz lehen bostak gehituko jakiez igaztik zuzenean sailkatu ziran beste zazpi bertsolarietara. Holan geratu dira finalurrekoak.

Zemendiaren 11n, Berrizko Olakueta frontoian, 17:00etan: Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Gorka Pagonabarraga Agorria, Xabat Gallettebeitia Abaroa, Iruiri Altzerreka Martinez, Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas" eta Koldo Gezuraga Seijidok kantau eben.

Zemendiaren 18an, Santurtziko Serantes kultur aretoan, 17:00etan: Aitor Bizkarra Ruiz, Jone Uria Albizuri, Mikel Goiriena

na Larrazabal, Unai Mendiburu Valor, Bittor Altube Sarrionandia eta Txaber Altube Sarrionandia izango dira bertsolariak.

Zemendiaren 25ean, Lemoako udal kiroldegian, 17:00etan: Nerea Ibarzabal Salegi, Onintza Enbeita Maguregi, Ibai Amillategi Omaetxebarria, Oihana Bartra Arenas, Josune Aramendi Perez eta Aissa Intxausti Aburruza ibiliko dira bertsoetan. Lemoako saioaren ostean jakingo dira, abenduaren 16ko arrastian, Bilbao Arenan jokatu dan finalerako parte-hartzaileak. Lemoako saioa irabazleak finalerako pasea lortuko dau. Beste guztiek puntuazinoaren arabera eukiko dabe finalera pasetako aukerea.

Finalurretan egin beharreko lanak honeek dira:

-Hiruna bertso ofiziotan, zortziko nagusian.

-Hiruna bertso ofiziotan, zortziko txikian.

-Hiruna bertso ofiziotan, hamarreko txikian.

-Ganbarako lana: puntua emonda bertso bi zortziko txikian eta gaia emonda, hiru bertso, doinu eta neurri librean.

ANTZERKIA

Kortxoaren dilema antzezlan hilaren 17an Lasarte Aretoan

Udagoieneko lehenengo antzezlan taularatuko dabe zemendiaren 17an gaueko 20:00etan Lasarte Aretoan, aurreko eguneko Arriaga Antzokiko estreinaldiaren osteko lehenengoa.



Erredakzioa

Egilea ezaguna da gurean, Patxo Telleriak idatzi dau-ta gidoia. Zuzendari beharrak Mireia Gabi-londorenak izan dira eta antzezle lanetan Tartean Teatroako Patxo Telleria bera eta Mikel Martinez izango dira. Bazkideek doban ikusteko aukerea izango dabe, besteek 8 eurotan erosi ahal izango dabe sarrerea.

Sinopsia

Irakaslea (70 urte) jubilaia da, ezkertiarra, polemikoa eta itzal handikoa. Pronostiko txarreko minbizia dauka, baina sendatzeko aukerea sortu da ezustean.

Aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan emon deutan erradioterapia ekipamentu batean tratamendua hartu da. Erexi publikoak gorraipatu egin dau donazino hau. Bakan batzuk, oster, gaitzetsi egin dabe. Honeen artean dago irakasle zaharra. Oin ebatzi latza hartu behar dau: bere printzipioak leiala izan eta bizitza salbatzeari uko egin; ala prakak jaitsi eta filantropoari eperdian pot egin.

Gaur hartu dau ebatzia. Publiko-ki iragartera doan momentuan, bere ikasle (60 urte) izandako bat agertuko da ezustean. Aspaldiko kontuak garbitzera dator.

IKUSKIZUNA

Umerez sorginen estereotipoak behera botako ditu Virginia Imazek Artean



Erredakzioa

Zemendiaren 26an, 18:30ean, Arteko Kultur Etxean egongo da Oihulari Klown taldeko Virginia Imaz *Akelarre* lanagaz.

Gai asko landuten dauz Imaz pailazoak *Akelarren*: begizkoa, deabruagazko tratua, sorgin-erriak eta sorgin-ehiza, tartean, ikuspegi feministeagaz eta zahartzaroari kantu eginaz.

Sorginak "gizon barik biziten ikasi edo ebatzi eben andrak ziran" eta feminizidio historiko honen gainean eta gaurkoaren gainean hausnartuten da *Akelarren*. Sorginaren azaleko estereotipoak andrakanako etenbako indarkeria eskutatzen dauala adierazoten dau lan honetan.

DUNBA

Dimako eskolako umeez gaztaina eguna ospatu eben Indusin urri bigarrenaren 31n

Dimako eskolako LH6. mailako ikasleak

2023ko urri bigarrenaren 31n gaztaina eguna ospatu genduan Dimako eskolako ikasleek. Gaztaina eguna Indusin izan genduan. LH6ko ikasleek antolatu genduan egun osoa.

Indusira bidean hostoen jolas bat prestatu genduan. Geletan hosto desbardinaren irudiak banandu genduan eta honek topau eta izena ipintea eskatu jakien ikasleei. Horrezaz gainera, ibilbidean zehar topautako zabo-



rra batzean ibili ginan.

Basoan lekutxo baten geratu eta han hamaketakoa jan genduan.

Indusira heltzean, olgetan ibili ginan. Eskaladea, ginkanea, harrapaketa, instrumentuak jo eta abar, egin genduan.

Ikasle ohi bi eta guraso batzuk be etorri ziran eskaladan laguntzera.

Goroexago, (guk) LH6koek, prestatutako ginkanan parte hartu genduan. Jolasean hainbat pista estali ziran. Pista bakoetak ekintza bat egitea eskatzen eban. Ginkanan, eskolako ikasleak nahastuta (LH1etik LH6ra) parte hartu eben; guztira 5 talde. Talde honeen izenak mitologiagaz lotuta egozan. Amaieran saria gaztainera erreak izan ziran.

Ondoren bazkaldu genduan.



Segiduan kontzertu labur bat izan genduan, eskolako ikasleek ekarritako musika tresnakaz. Bitartean, gaztainak jan genduan. Arpegiak margotutakoak ginan baina, denporeak harrapatu ginduan.

Egun hau ez zan posible izango, ikasle ohi batzuek barik, urtero gaztainak erretzen deuskuzan andrearen laguntzera barik, Indusira heltzean lagundu deuskuzan gizon baten laguntzera barik eta Guraso Elkartearen laguntzera barik. Eskerrik asko!

AGENDA

ZEMENDIAK 16
ARANTZAZU

18:00etan, 2024ko aurrekontuetarako batzarra Kultur Gunean.

AREATZA

Hilaren 22ra arte, gazteek etxebizitzak alokatzeko udal dirulaguntzak eskatzeko epea udaletxean edo udal webgunean.

ARTEA

18:30ean, Greba Feminista Orokorren gaineko batzar informatiboa. *Eta Artean zer?* Kultur Etxeko Aretan.

19:00etan, 2024ko aurrekontuetarako herri batzarra Kultur Etxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 17ra arte, Tolosako Gabonetako azokara urtekerarako izen-emotea. Urtekeraren eguna abenduaren 16a da; Gabonetako Postalen Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Oinarriak liburutegian eta udaletxean; Udalak antolatutako ikastaroetan plaza libreak beteteko aukerea; Bilboko Gabonetako Umeen Parkera joateko izen-emotea. Urtekeraren abenduaren 29an izango da eta Gasteizko City Jump-era joateko izen-emotea. Urtekeraren urtailaren 3an izango da. Liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 24ra arte, birziklatzeko materialaz egindako Gabonetako Zugatzen Lehiaketa. Oinarriak liburutegian eta udaletxean.

DIMA

16:30etik 19:30era, *Gizonak berdintasunerantz pausoka. Gizentasun berri baten aldeko 24 irudi eta hamaika arrazo* erakusketa liburutegian. Atzen eguna. 18:00etan, jenteari zuzendutako ekintza bat eta Juan Manuel Feito Piper Txuriak alkartekoaren berbaldua.

IGORRE

Arrastian, Elkartasun Begiradakek antolatuta, Laugarren Azoka Solidariarako gauzak batu, Agirre Lehendakaria kaleko aterpeetan (autobusaren geraleku ostean).

Hilaren 22ra arte, 23an izango dan Mintzodromoan parte hartzeako izen-emotea Igorreko Kubulu Euskaltegian edo 662 199 033 telefonoan.

Zemendiaren 30era arte, Kiñu Gaztetxeak urteotan sortutako kartelen erakusketa Axular Herriko Tabernan.

Abenduaren 15era arte, Lasarte Aretoko bazkide izateko kanpaina.

20:00etan, zinekluba *Papicha, sueños de libertad* Lasarte Aretan.

LEMOA

Abenduaren 15era arte, konsumorako bonuak erabili daitezke. Hemen erosi daitezke: Merceria Josier, Tximeleta, Batzoki Lemoa, Kresala, Argazkilune, Laiane Ileapaindegia, Farmazia, Amorrortu, Lezat eta Bizkarran, 10 euroko prezioan, 15 euroko balioagaz erabiliteko.

Lemoako Binakako I. Pentatloia kiroldegian 16 urtetik gorakoentzat.

Atzen eguna, kiroldegiko ikastaroetarako ate irekiak.

ZEANURI

Udagoien osoan, Gorbeia Parke Naturalak Otzarreta ingurua gozatzeko natura errespetatu, konzientziarazino kartelak ipiniko ditu Barazar inguruan.

ZEBERIO

Hilaren 20ra arte, Austarri mendi taldeak hilaren 25erako antolatu dauan mendi urtekerarako izen-emotea

austarrimendialdea@gmail.com helbidean, 665 735 054 edo 656 415 597 telefonoan edo lokalean 17an, 20:00etatik 21:00etara.

ZEMENDIAK 17
ARANTZAZU

16:30ean, *Bizkaia badi* argazki erakusketa; 18:30ean, *Itsasoan gaitun* dokumentala eta Iratxe Martinez Gaitun alkarteko kideagaz barriketaldia Kultur Gunean.

AREATZA

17:00etan, *Familia kontziliazioa antzerkiaren bidez* egitasmoa aurkeztutako batzarra udaletxean. Izen-emotea <https://labur.eus/WwhTQ> estekan.

18:30ean, zemendiaren 30eko Greba Feminista Orokorren gaineko solasaldia Orratzak neska* gazte taldeagaz batera Laminetxe Gaztetxean.

ARTEA

20:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

IGORRE

19:30ean, X. Rokupa. IZARE poesia musikatu Axular Herriko Tabernan.

20:00etan, antzerkia, Tartearen Teatroaren *Kortxoaren dilema* Lasarte Aretan.

LEMOA

Kirol eta ariketa fisikoaren astea. Eguraldiak lagundu ezker, 18:30ean, Durundibarri Dantza Taldearen eskutik, Dantzan Plazaz Plaza, Plaza Gorrian.

ZEBERIO

18:00etan, Berbalagun egitasmoaren aurkezpena eskola zaharrea.

ZEMENDIAK 18
AREATZA

11:30etik 13:30era, zeramika ekintza Buztinola tailerrean. Izena alde zurretik emon 615 731 182 telefonoan.

20:30ean, Tequilas Moonrise taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

BEDIA

18:00etan, pobrezia kontrako eguneko ekitaldia frontoian: batutako dirua jasoko dauan proiektuaren aurkezpena: korua, jantzak, antzerkia, musika, zozketa eta txokolata.

DIMA

10:00etan, neska gazteentzako



Umeentzako antzerki musikatu eta nagusientzako ipuin kontaketa musikatu Kotxepin Kultur Etxean

Zemendiaren 24an, 18:30ean Lanku Kultur Zerbitzuek *Teilatupean. Lur eta Dororen ametsa* umeentzako antzerkia eskainiko dabe eta 29an, 18:30ean, Maider Alcelayk *Emeen kemen* nagusientzako ipuin kontaketa musikatu egingo dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Teilatupean. Lur eta Dororen ametsa antzezlanak etxea gaiaren bueltan beste hainbat gai jorratzen ditu, 5 urtetik gorako umeentzat: adiskidetasuna, zaintza, etxebizitzaren arazoa, migrazioa, marjinazioa, duintasuna eta bizitza eredu aniztasuna, beste batzuen artean.

Hamasei urtetik gorakoentzat da barriz, Maider Alcelayk egingo dauan narrazio saio musikatu. Ipuinen arteko lotura, protagonista diran andre bizitako, sentidutako eta aurrera egiteko daukien gogo da; barrutik sortuten jakien indarra, beharra eta desioak antzekoak diralako.

Autodefentsa feminista tailerra eskolan.

IGORRE

X. Rokupa. 12:00etan, mahai-ingurua Kiñu okupau ebenakaz eta umeentzako tailerrak Herriko Tabernan; 14:30ean, bazkaria Kiñu Gaztetxean (txartelak Axular Herriko Tabernan salgai 16ra arte); 18:00etan, Ane Lindane Kukuma tabernan eta gero bafle-potea; 21:30ean, kontzertuak Kiñu Gaztetxean: Eire, Amooma, Gora Etorri eta DJ Matxinada.

LEMOA

Kirol eta ariketa fisikoaren astea. 09:00etatik 13:00etara, 12 eta 16 urte bitartekoentzat padela eta frontenisa kiroldegian; 11:00etan, HH2 eta DBH4ko bitartekoentzat, IV. Duetloi Txikia eta 7 urtetik gorakoentzat bizikleta ginkana ikastetxean; 16:30ean, Lemoako pelotarien erakustaldia kiroldegian eta musika, pintxo-potea, errifak eta sariak.

ZEANURI

12:00etan, Zeanuriko korua kaleetan abesten. Ostean, bazkaria.

ZEBERIO

11:00etan, umeen sexu abusuak prebenidutako sensibilizazio berbaldua udaletzeko 2. solairuko gelan.

ZEMENDIAK 19
LEMOA

08:00etan, Lemoatx Trail eskolatik urtenda. 08:00etan, mendi martxa luzea (24 kilometro); 09:15ean, lasterketa luzea (24 kilometro); 10:00etan, lasterketa laburra (16 kilometro); 10:45ean, mendi martxa laburra (8 kilometro).

17:00etan, Arratiako neska* gazteen agerraldi irekia Greba Feminista Orokorre deitzeako Plaza Gorrian.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Richard la cigüeña y la joya perdida*; 19:30ean, *Misterio en Venecia* Lasarte Aretan.

ZEMENDIAK 20
BEDIA

16:30etik 19:30era, abenduaren 5era arte, Gabonetako Bingo Kaferako izen-emotea liburutegian. Bingo Kafea abenduaren 17an izango da.

ZEMENDIAK 21
AREATZA

18:30ean, mahai-ingurua *Zaintza sistema: erronkak, proposamenak eta borroka feminista*. Hizlariak: Matxalen Legarreta, Begoñe Markina, Marta Chuc eta Katia Henríquez. Udal pleno aretoan.

IGORRE

17:30etik 19:30era, Elda Barreroren

Arteterapia ikastaroaren lehenengo saioa Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 22
LEMOA

19:30ean, Ste Xeito Producciones-en *Feminissimas* antzezlan Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 23
ARTEA

18:00etan, Arratia Musika Eskolako Zezili Deunaren jaialdia plazan eta ostean kalejirea eta txokolata.

IGORRE

11:30etik 13:00era, Berbalagunek antolatutako Arratiako Mintzodromo Kubulu Euskaltegian.

19:00etan, Gabonetako Programazio Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etan, zineforuma *Mustang* pelikulearen inguruan, Arkotxan.

ZEBERIO

18:30ean, *Volar* dokumentalaren emonaldia udaletzeko 2. solairuko gelan.

ZEMENDIAK 24
BEDIA

17:30etik 19:00etara, 18 urtetik gorako andrentzako, *Visibilizando la violencia de género* indarkeria matxistaren inguruko solasaldia liburutegian.

DIMA

19:00etan, Atx Teatroaren *Tomiris. Mendeku zilegi baten istorioa* frontoian.

IGORRE

18:00etan, Teatro Paraisoren *Kutxa artean* antzerkia.

18:45ean, *Zaldi berdea* liburuaren aurkezpena Jose Maria Sagardui "Gatza" gaz Axular Herriko Tabernan.

20:00etan, andrakanako indarkeriaren kontrako egunaren harira, Poesia hegalaria taldeak olerki eta musika saioa eskainiko dau liburutegian.

LEMOA

21:00etatik aurrera, 2000ko hamarkadako giroa Karabie Gaztetxean. Hamarkada haretako jai estiloan jantzita joateko deia egin dabe, lehiaketa be egingo da; 22:00etan, karaoketa eta gero Patxeta Sound System. *Photocalla*, pontxea, "mamarratxetxo" eta sorpresa gehiago.

ZEANURI

18:00etan, Astierriko San Andres jaien hasikerea; 19:00etan, Igel Txapelketa (umeak eta nagusiak); 21:30ean, auzo afaria (izena hilaren 22ra orduko emon behar da 636 378 870 telefonoan) eta ostean mahai-jokoak eta kantuak.

ZEBERIO

19:30ean, Etxanderak Zeanuriko jantza taldearen emonaldia frontoian.

ZEMENDIAK 25
AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandaren Santa Zezilia kontzertua eleizan.

BEDIA

Eleizalde Bediako jubiladu eta pensionisten bazkaria. 13:00etan, mezea alkarteko hildakoen alde; 14:30ean,

bazkaria frontoian.

IGORRE

San Andres jaiak Urkizun. 12:00etan, mezea eta ostean herriko trikitilariak eta barauskarria.

20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Bilboko Sanfran Korueren kontzertua Andramari eleizan. Pianojolea: Marta Diaz Iriondo; zuzendaria: Miren Zubieta Egia.

LEMOA

17:00etan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako atzen finalurrekoa. Aissa Intxausti Aburruza, Ibai Amillategi Ormaetxebarria, Josune Aramendi Perez, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Bartra Arenas eta Onintza Enbeita Maguregi. Kiroldegian.

ZEANURI

San Andres jaiak Asterrian. 18:30ean, Julen Etxebarria motozerragaz eta Mikel Etxebarria ardi moztan biko desafioan; 19:00etan, harria tirituteko desafioa; 20:30ean, odoloste jana; 21:00etan, jantzia Jainaga eta Narbaizagaz; ostean, musika.

ZEBERIO

08:30ean, Austarrik antolatuta mendi urtekeria. Larrabetzu-Bizkargi-Morga.

ZEMENDIAK 26
ARTEA

18:30ean, Oihulari Klown-en *Akelarre* ikuskizuna, Virginia Imaz. Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etan, zinea, *La patrulla canina: la superpelicula*; 19:30ean, *O corno* Lasarte Aretan.

ZEBERIO

10:00etatik 15:00etara, Udalak eta Gorbeialdek antolatuta, Neguko Azoka Zubialden.

ZEMENDIAK 27
IGORRE

18:30ean, Emma Larretaren *Invisibles* dokumentala eta berbaldua Lasarten.

ZEMENDIAK 28
IGORRE

17:30etik 19:30era, Elda Barreroren *Arteterapia* ikastaroaren saioa Kultur Etxean. 17:30ean, Bizi Igorren 2030. Hausnarketa saio parte-hartzailea. Udaletxe azpiko lokaletan.

ZEMENDIAK 29
ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa. Goiatz Labandibarren *Bekatu*. Kultur Etxean.

IGORRE

18:00etan, 18 eta 34 urte bitartekoentzat *Etxebizitza eta gazteak. Aukerak eta baliabideak* ezagutu Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 30
IGORRE

Arrastian, Azokoa Solidariarako gauzak batuko dauz Elkartasun Begiradak taldeak Lehendakari Agirre kaleko autobus geralekuaren atzean.

ZEANURI

San Andres jaiak Asterrian. 19:00etan, mezea; ostean, txokolata; 20:00etan, jaien amaiera.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarru auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

TXOKORAKO MAHAIAK SALTZEAN DIRA

Mahaien neurriak: 2,80 metro luzeerea, 90 cm zabalera eta 8,50 cm lodiera. Prezioa: 300 euro. Eserlekua, 2,80 eta 3 metrokoak, 50 euro bakotzak. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeerea, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

LANA

GITARRA KLASIAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Kortxoaren dilema antzezlanerako.**

Iker Garcia (Areatza)
Jose Manuel Zarrabeitia (Areatza)



2 Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Lemoako atzen finalaurreerako bina sarrera.

Txiki Marañon (Zeanuri)
Amaia Azurmendi (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu
eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zikutzekutze@telefonos.net

begitu
eus

OPARI BONUAK

— 2023 —

OPARITU ONDOIZATEA

*Sartu gure webgunean, aukeratu
opari bonua, inprimidu eta listo!*

ZIRKUITU
TERMALAK

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

EGONALDIAK

HOTELEAN

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

18€tik aurrera

hotelbalnearioareatza.com

hotelbalneariorduna.com

